

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Abadiño*



Aurkibidea

# Udalerria: Abadiño

## Sarrera



Bizkaiko hego-ekialdean, Durangaldean, dagoen udalerria da. Herri hauek ditu mugakide: iparraldean Garai; Ipar-ekialdean Berriz; ekialdean Elorrio; Hego-ekialdean Atxondo; hegoaldean Otxandio eta Aramaio, (Araba); hego-mendebaldean Dima; mendebaldean Izurtza eta Mañaria; eta Ipar-mendebaldean Durango eta Iurreta. Honako auzo hauek ditu: Amaitermin, Astola, Gaztelua, Gerediaga, Lebario, Irazola, Mendiola, Murueta, Muntsaratz, Sagasta, Traña-Matiena, Zelaieta. Mendebaleko euskararen aldaera bat da herriko eta inguruko jatorrizko euskalkia.

*Argazkia: Zarateman*

- **Biztanleak:** 7.163
- **Euskaldunak:** %52,41

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **26**
- Zintak: **31**
- Pasarteak: **326**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **61**
- Bideoak: **265**

## Proiektuak

- Abadiñoko ahotsak
- Dialektologia-EHU
- Durango 1936
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma

## Hizlariak

### **Aurelio Abaunza Bereziartua (1929)**



Sagasta auzoko Ardantza baserriko semea. Aita bertakoa zuen eta ama Orozketakoa (lurreta). Gerra Zibilean Larraskitu aldean errefuxiatuta egon ostean joan zen Mendiola auzoko eskolara. Gaztetako neska laguntzeak eta erromeriak, etxean egiten zuten txakolina eta sagardoa, karobiak, txondorrek, gari eta arto lanak, erreka arrantza... izan zituen berbegai, besteak beste, bere auzokoa den [Juan Abaunzagaz](#) batera. Argazkian ezkerrean agertzen dena da Aurelio.

### **Juan Abaunza Etxebarria (1930-2014)**



Sagasta auzoko Sagastaetxebarría baserrian jaio zen 1930. urtean hiru neba-arrebadun familia batean. Gurasoak ere biak zituen abadiñarrak. Mendiolako eskolako kontuak, gaztetako neska laguntzeak eta erromeriak, erremundadak, karobiak, txondorrek, gari eta arto lanak, erreka arrantza... izan zituen berbegai, besteak beste, bere auzokoa den [Aurelio Abaunzagaz](#) batera. Irudiaren eskumako aldean ageri dena da Juan.

### **Enrike Ardanza Odriozola (1928-2015)**



Mendiola auzoko Mendiolagarai baserriko semea. Aita zuen bertakoa eta ama Durangoko [San Fausto](#)koa. Gerra aurreko eta osteko Mendiolako eskolak ezagutu eta gero, 15 urtegar Durangoko lantegi batean hasi zen beharrean. Gerra Zibilean auzoa utzi zuten hilabete batzuetarako eta herri aldera joan ziren, senitarteko batzuen etxera. Minazuloetan ezkutatzen ziren bitartean, aita, anaiak eta osaba Sopuertaraino joan ziren ebakutatuta. Mendiolan bizi izandako 28 urteetan denetarik egin eta ezagutu zuen bertan, elkarrizketan kontatu zigun moduan: gari- eta arto-lanak, errotak, karobiak, txondorrek, elurzuloak, San Juan eta San Kristobal ospakizunak eta bestelako erromeriak, bedeinkazioak eta erlijioaren indarra, baserriko eta basoko beharrak, usadio zaharrak...

### **Anastasio Arkarazo Antxia (1919-2013)**



Abadiño-beaskoa baserriko semea. Beraien etxeko txakolina ezaguna izan zen herrian, garizuma garaian bertan batzen baitziren herritarrak. 18 urte gaz gerrara joatea egokitu zitzaion eta ondorioz, hiru bider egin zuen soldadutza. Bere auzoko [Edurne](#) eta [Paul](#) Astigarraga neba-arrebak izan zituen lagun elkarrizketan. Argazkian ezkerrean agertzen dena da Anastasio.

### **Mari Arrieta Jainaga (1933)**



Mendiola auzoko Untzilabarrenengoa baserrian sortu zen. Ama zuen bertakoa eta aita San Agustinekoa. Ume sasoi Mendiolan igaro eta gero 15 urte gaz utzi zuen auzoa. Garai hartako bizimoduaren berri eman zigun bere auzoko [Benedi Garate](#) gaz batera. Argazkian eskumako aldean agertzen dena da Mari.



### **Jose Antonio Arrinda Amezua (1934-2024)**

Gerediaga auzoko Jandustegin jaio zen 1934. urtean. Aita auzokoa bertakoa zuen eta ama Trañagoitikoa.

### **Felix Arrinda Uriarte (1933-2023)**

Abadiñoeko Gaztelu auzoan jaio zen, baina gerora Elorriora joan zen bizitzera. Ehiztaria. Txori-izenak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2001ean.

### **Edurne Astigarraga Landaluze (1927-2022)**



Abadiñoeko Abarketeruen etxean jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama Mendiola auzokoa. Aitaren aldeko aitite-amamak Azkoititik etorri eta han zabaldu zuten denda, taberna, pentsu-biltegia, bizartegia, estankoa... izan zena. Bera ere dendan eta tabernan aritu zen beharrezko gaztetatik. Bere neba [Paul](#) eta auzoko [Anastasio Arkarazo](#) izan zituen lagun elkarrizketan. ABD-003 zinta 2004. urteko audio-grabazioa bat da.

### **Paul Astigarraga Landaluze (1925-2022)**



Abadiñoko Abarketeruen etxean jaio zen. Aita zuen bertakoa eta ama Mendiola auzokoa. Aitaren aldeko aitite-amamak Azkoititik etorri eta han zabaldu zuten denda, taberna, pentsu-biltegia, bizartegia, estankoa... izan zena. Bera ere barberu beharretan ibili zen bertan urte askoan. Bere arreba [Edurne](#) eta auzoko [Anastasio](#) Arkarazo izan zituen lagun elkarrizketan. Argazkian eskuman agertzen dena da Paul.

### **Teresa Bengoa Azula (1930-2015)**



1930. urtean jaio zen Gerediaga auzoko Orue baserrian. Ama lurretakoa zuen eta aita Zeanurikoa. Trañako eskolara eta Durangoko Santa Susanara joan zen neskatotan; azken horretara esku beharrak egitera bidali zuten, baina neguan baino ezin izaten zen joan. 17-18 urte zituenerako bendeja hartuta joaten zen Bilboko San Anton merkatura. Erliñoaren indarraz, Gerra Zibilaz, autopista eraiki zuten garaiaz, arropa garbiketaz, ikazkintzaz... aritu zen bere auzokoa den [Mari Paz Elorriaga](#)rekin batera. Hiketan ari dira momentu oro elkarrizketa honetan bi lekukoak. Argazkian, ezkerrekoa da Teresa.

### **Mari Paz Elorriaga Garitaonandia (1932-2024)**



Gerediaga auzoko Gerediaga baserriko alaba. Aita zuen bertakoa eta ama berriztarra. Trañako eskolara eta Durangoko Santa Susana ikastetxera joan zen umetan, 13 urtera arte. Ezkondu ostean auzo bereko "Uxarre" Urizar baserrira joan zen bizitzera. Bere auzokidea den [Teresa Bengoa](#)gaz batera egin genion lehengo Gerediagari buruzko elkarrizketa. Hika trataera da nagusi. Irudian eskumako aldean ageri dena da Mari Paz.

### **Bittor Garaigordobil Berrizbeitia (1915-2018)**



Amaitermin auzoan jaio zen 1915. urtean. Udalerriz Abadiño izan arren, elizaz Otxandiori dagokio beraien auzoa. Aita bertakoa zuen eta ama Arrazolakoa. Hamar neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Abade izateko erabakia hartu eta hamahiru urte zituela Arteako seminariora joan zen. Gerra Zibilean, abadegaia zenez, armekin barik "kamillero" bezala ibili zen soldadu. Euskal Herrian zein Espainia aldean ibili zen, betiere derrigortuta; Bilboko "libertadore" bat dela ere gogoratzen du ironikoki. Gerraostean, Gasteizko seminarioan egon zen, ikasle zein irakasle. 1948an Ekuadorrera joan zen misioetan eta 1982. urtean bueltatu zen bere jaioterrira, Urkiolako santutegira, hain zuzen ere. 97 urte bete berritan egon ginen berarekin eta ia azken mendeko berri eman zigun.

### **Cristina Garaigordobil Bustinza (1920-2013)**



1920ko Santiago egunez jaio zen Amaitermin auzoan eta bertan igaro du bizimodua. Auzo hori Abadiño lurretan egon arren, Otxandioko herritik hurbil dago eta horrako joera izan dute betidanik. Aita bere jaiotetxekoa zuen eta ama Dimakoa. Bost seme-alabatan zaharrena izan zen eta umetan astia zegoenean baino ez ei zen joaten eskolara. 200 buru inguruko artaldea zaintzen gazterik hasi zen eta oso ondo ezagutzen zuen bizimodu hori. Oletakoa (Aramaio, Araba) izan zuen senarra.

### **Benedikta Garate Etxebarria (1928-2021)**



Mendiola auzoko Larringanen jaio zen. Gurasoak auzo berekoak zituen, ama bere jaiotetxekoa. Umetatik hasi behar izan zen baserriko beharretan garai hartako ume gehienak bezala. Gerra Zibilean etxea erre zuten eta konpondu arte auzoko beste etxe batzuetan bizi izan ziren. Bere auzoko [Mari Arrieta](#) gaz batera egin genion grabazioa. Ezkondu ostean Oromiñora (Iurreta) joan zen bizitzera. Argazkian ezkerrekoa da Benedi.

### **Juan Luis Garcia Itxaso (1953)**



[Durango 1936](#) Elkartekoek elkarrizketatu zuten Juan Luis, Jesusa Itxaso eta Nikolas Itxaso bere amaren eta osabaren gerra-garaiko bizipenak jasotzeko. Juan Luisen ama gerrako ume legez ibili zen Frantzia aldean. Osaba, berriz, Abadiñon jaio zen eta pilotari palista profesionala izan zen, Bilbon, Madrilen eta Bartzelonan. Bartzelonan zegoela gerrak harrapatu zuen, eta handik Frantziara alde egin behar izan zuen. Kontzentrazio esparru batean gaixotu eta ospitalean hil zen.

### **Jose Gastelu-Urrutia Arabio-Urrutia (1922-2015)**



1922. urtean sortu zen Gaztelu auzoko Aristiganen bederatzi seme-alabadun familia batean. Gurasoak ere auzo horretako zituen. Abadiñoko eskolara ahal zenean joaten ei ziren, baserrian behar asko izaten zuten-eta. Gerra aurretik, 13 urte zituenerako, morroi joan zen Berrizera eta bertako bi familiatan egon zen 16 urtera arte. Hainbat gairi buruzko informazioa eman zigun elkarrizketan bere emazteagaz batera: Gazteluko antzinako bizimodua, erreka arrantza, perretxikoak, Gerra Zibila, basoko beharrak, auzolana, ermandada... Trañara ezkondu zen bertako [Deogracias Sarrionandia-Ibarragaz](#). Elkarrizketa garaian, eurak ziren Abadiñon jaiotako eta elkarrekin ezkonduak andra-gizonak zaharrenak; izan ere, 66 urtez ezkondu egotea ez du edonork lortzen.

### **Emilio Iturriagaitia Etxeita**



Gerra garaiko kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936](#) Elkartekoek, [Nieves](#) arrebarekin batera.

### **Nieves Iturriagaitia Etxeita**



Gerra garaiko kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936](#) Elkartekoek, [Emilio](#) anaiarekin batera.

### **Fidela Mendiola Arrazola (1928-2018)**



Muntsaratz auzoko "Joxiona" baserriko alaba. Ama zuen bertakoa eta aita Irazola auzokoa. Hiru neba-arrebatan zaharrena izan zen, eta umetan ere ahal zenean joaten zen eskolara; izan ere, etxean beti zuten gura beste behar. 15-19 urte bitartean Abadiñoko Abarketeruenean egon zen josten ikasten. Orduko bizimodua, baserriko lanak, jaiak... izan zituen beragai bere [senarragaz](#) batera. Auzoko bereko Bolinaga "Boliña" baserrira ezkondu zen eta bertan osatu zuen familia.

### **Santiago Mendizabal Bengoa (1916)**



[Durango 1936](#) Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerra garaiko kontuak jasotzeko. Lau anaietatik hiru ibili ziren gerran: Santi, Jesus eta Julian. Azken hau ezin izan zen itzuli gerratik, Asturiasen bizitza kendu zioten eta. Santik, Sukarrieta batailoikoekin borrokatu ondoren, "trabajadoreetan" egonaldia egin behar izan zuen; eta ondoren, behartutako soldadutza egin behar izan zuen.

### **Alfonso Pagonabarraga Gastelurrutia (1928-2021)**



Muntsaratz auzoko Bolinaga "Boliña" baserrian jaio, hazi eta bizi izandakoa. Aita bertakoa zuen eta ama Gaztelu auzokoa. Hamar seme-alabetan zazpigarrena izan zen. Abadiñoko eskolako kontuak, tabakoa erein zutenekoa, Ermandadeko "listeru" zen garaietako kontuak, barbero lanetan ibilitako urteak... ekarri ditu gogora elkarrizketan [Fidela Mendiola](#) bere emazteagaz batera.

### **Deogracias Sarrionandia-Ibarra Irigoien (1924-2018)**



Traña auzoko Etxosteko alaba. Aita bertakoa zuen eta ama Muntsaratz auzokoa. Alaba bakarra izan zen. Gazterik gelditu zen umezurtz: aita 2 urte zituela hil zitzaion eta ama Durangoko bonbardaketan. Hori dela-eta, Bilbon bizi zen izeko baten etxean denbora asko pasatu zuen eta Trañan ere izeko batekin hazi zen. Trañako eskolan euskaraz ikasteko aukera izan zuen gerra aurretik. Gerraostean, ostera, Bilboko eta San Faustoko (Durango) mojen ikastetxean ikasi zuen. Antzinako Traña zelakoa zen oso ondo gogoratzen du, etxe gutxi batzuk baino ez zeuden orduan-eta. Beraien jaiotetxea bota eta eraikin berria egin zuten bertan inguruko etxe gehienekin egin zutela bezala. Gaztelu auzoko [Jose Gastelu-Urruti](#) gaz ezkondu zen. Elkarrizketa garaian, eurak ziren Abadiñon jaiotako eta elkarrekin ezkonduetako andra-gizonak zaharrenak; izan ere, 66 urtez ezkondu egotea ez du edonork lortzen. Elkarrizketa guztian zehar hitanoa darabil.

### **Donato Urien Armendia (1904-1994)**

Sagasta auzoko Anbe baserrian jaio, hazi eta bizi izan zen. 5 neba-arreba izan ziren. Artzaintza izan zuen lanbide. Mari Karmen Campo Lejarzagaz ezkondu eta 9 seme-alaba izan zituzten.

### **Gregorio Urionaguena Arriaga (1917-2020)**



Primo de Riveraren sasoian, Julene Azpeitia izan zuen irakasle eskolan. Gerratean Eusko Indarra batailoian ibili zen. Gerra garaiko kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936](#) Elkartekoek. Bere emazte [Juanita Lejarreta](#) ere berarekin egon zen elkarrizketan.

### **Petra Urizar Bazeta (1908-2007)**

Arrazolan jaioa. 19 urterekin Abadinora ezkondu zen eta 20 urterekin izan zuen lehen umea. Elkarrizketa egin zitzaionean 82 urte zeuzkan. Antzinako bizimoduaz eta gertatu diren aldaketez hitz egiten du egindako elkarrizketan.

### **Eulogia Zabala Arkarazo (1920-2002)**

# Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

## 1. Ohiturak eta bizimodua

### 1.1. `Txirrita´ren lendabiziko bertso-lagunak

- **Hizlaria(k)**: Urien Armendia, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrinaga, Idoia
- **Erref**: ABD-004/006
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:11:03. **Bukatu**: 00:12:56
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:  
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: `Txirrita´ren "lendabiziko bertso-lagunak" bertso sorta. Data aldatuta kantatzen ditu bertsoak.

#### Transkripzioa

Milla beatzirehun larogei eta  
hamahiru urte hurrian,  
lehelengo plazan kantatu nuen  
Hernaniko lurrian,  
San Antonio deitzen dioten  
erminta baten aurrian,  
lagunak alkar estimatuaz  
lehengo ohitura zaharrian.

Joxe Migelek atera zuen  
oso hizketa leguna:  
"Hau da, gaztiak, prezisamente  
gaur guk egin bihar deguna:  
altxa dezagun San Antonio,  
gaur da beraren eguna!".  
Gaur [ihes eginda dago han izutua]  
orduko nere laguna.

Hirurogeta hamar bat urte  
badaduzkat nik bizkarrian,  
kargamenturik txarrena hau det,  
ezin utzi baztarrian;  
hanka batetik kojoka nabil,  
min txarra daukat ixtarrian,  
baiña baditut lagun maitiak,  
ez nago modu txarrian.

Gazte-gazterik hasi nintzan ta  
oraindaiño bitartian  
zenbait umore jarri ete det  
Kantabriako partian;  
puska batian ez naiz ahaztuko  
sartuagaitik lurpian,  
nere aitamenak izango dira  
beste larogei urtian.

## 2. Familia eta harremanak

### 2.1. Teresaren ama birritan ezkondu zen

- **Hizlaria(k):** Bengoa Azula, Teresa; Elorriaga Garitaonandia, Mari Paz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** ABD-016/003
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:04:37. **Bukatu:** 00:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Teresaren amari gizona hil jakon eta ostean morroiarekin ezkondu zen. Neba-arreba bi lehenengo ezkontzakoak ziren eta lau bigarren ezkontzakoak.

#### Transkripzioa

- Mari Paz: Zuen ama Oruako semiaz euenan ezkondu.
- Teresa: Bai, ta hil zan.
- Mari Paz: Ta hil zan.
- Teresa: Hil zan.
- Mari Paz: Ta hil zanién, gero krixauaz ezkondu zan.
- Teresa: Bai, krixaué egon zan han. [...]
- Mari Paz: Asike aurreko ezkontzakue zan, bai. Hormaetxea.
- Teresa: Etorri zan, Zeanurittik etorri zan. Baiña Zeanurin beste etxe baten be egon zan, krixau. Ta handik pasau zan Oruara.
- Mari Paz: Oruara.
- Teresa: Oruen egon zan gero.
- Mari Paz: Bengoa. Pedro Bengoa.
- Teresa: Bengoa, abizena.
- Klaro, zure aman bigarren ezkontzako.
- Teresa: Bigarren ezkontzakue.
- Mari Paz: Bai, bai.
- Ta neba-arreba danok zarie bigarren ezkontzakoak?
- Teresa: Lau bai. Lau azkeneko ezkontzakuek. Ta bi zien bakarrik lehenengo gizonaz.
- Mari Paz: Bai ta harek hil zien.
- Teresa: Hil zien harek.
- Mari Paz: Bai.
- Orduen famili handixe ziñien?
- Teresa: Bueno bai, nik ezetu nabezan, bixek ezetu nabezan.
- Mari Paz: Neuk be bai.
- Teresa: Gaixoik egon zanién hik be bai.
- Mari Paz: Felisa ta. Felisa ez gaiñunan ezautuko ba! Ta Kontxes be bai.
- Teresa: Kontxes.
- Mari Paz: Kontxe be bai.

### 2.2. Bigarren ezkontzak

- **Hizlaria(k):** Bengoa Azula, Teresa; Elorriaga Garitaonandia, Mari Paz
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** ABD-016/005
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:08:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna  
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

- **Laburpena:** Lehen, andre zein gizon alargunak ezkontzen ziren. Batzuk, ostera, betiko alargun geratzen ziren. Orduan, bikoteak ez ziren banatzen; ezkontza betiko izaten zen.

### **Transkripzioa**

- Zure ama atzera be ezkondu zan.
- Bai.
- Han sasoién gizon alargunek bai ezkontzen zien baiña andra alargunek...
- Bai,bai,bai iguel, bai,bai, bai...
- Hoixe baietz.
- Ta asko geatze zien alargun betiko.
- Baitte hori're, bai.
- Nire agiñarreba...
- Oingo plana ez behintzet, oin itten dabiéna, separau ta kitto! Lehen halakoa izaten zuten.
- Orduantxe... separasiñoik.
- Hor ezkontza izate zen liberaziñue izaten zan.
- Baitta, bai.
- Ezkondu itte za, ezta?
- Ba ya esta.
- Ya esta.
- Bizi guztirako, lehen holan zan, gure ezkontza guk be ez genduan (...) pentsau bez holakoik.
- Gure ama Dolores, nire amagin arreba hogeta hamasei urteaz geldittu zunan alargun, ta beti baltzik.
- Bai,bai,bai
- Beti baltzik.
- Durungon bizi zana, ezton?
- Ez, etxeko ama Dolores.
- Ah bai.
- Dolores
- Dolores bai, bai hoixe.
- Bai gauzak holantze izaten die.

## **Transkripziorik gabeko pasarteak**

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### **1. Uso-klaseak (ABD-001/002)**

Uso-klaseak: "tortolie", "zurittie", "uso-nausixe"...

### **2. Mozoloak eta gau-txoriak (ABD-001/005)**

Mozoloak eta gau-txoriak. Beste txori-izen batzuk.

### **3. Ur-txoria eta ur-oiloa (ABD-001/007)**

Ur-txoria nolakoa den. Ur-oiloa.

#### **4. Bi okil klase: handia eta txikia (ABD-001/009)**

Okila. Bi klase daude: txikia eta handia. Okila gutxi ikusten omen da inguruetan. "Txinbotxa".

#### **5. Larretxoria nolakoa den (ABD-001/011)**

Larretxoria. Okilaren antzekoa, baina beti lurrean ibiltzen dena. Nolakoa den.

#### **6. Kalandriak; pasekoa eta basokoa (ABD-001/013)**

Larretxoria. Kalandria; bi klase daude.

#### **7. Buztanikara, ganadu artean (ABD-001/015)**

Buztanikara asko ibiltzen da ganadu artean. Beste txori-izen batzuk.

#### **8. Artatxoria nolako izaten den (ABD-001/017)**

Artatxoria nolakoa izaten den.

#### **9. Bele-klaseak (ABD-001/019)**

Bele klaseak. Txikiari "belatxina". Batzuek beleari "abadea" deitzen omen diote.

#### **10. Sasi-txoria nolakoa izaten den (ABD-001/021)**

Sasi-txoria nolako izaten den.

#### **11. Umetatik ezkondu arteko bizimodua (ABD-002/001)**

Antzinako bizimodua zeharo desberdina zen. Etxean beharra zegoenean, eskolara joan ere ez, eta justukoa ikasi zuen. Arrazolakoa da izatez. Neska eta mutil ibiltzen omen ziren gaztetan auzoan. Gazterik ezkondu zen eta hogeit urterekin izan zuen alaba. Durangora joaten zen ortuariak saltzera, otzara buru gainean hartuta.

#### **12. Urkiolara iratara, goizeko hiruretan jaikita (ABD-002/002)**

Urkiolara joaten ziren oinez iratara, goizeko hiruretan jaikita. Iluntzera arte lan egin, etxera joan, umearekin lo egin, hari titia eman eta hurrengo goizean berriz hiruretan Urkiolarantz. Gaizki jan eta behar asko egin; baina pozik bizi ziren.

#### **13. Bizimodua nola aldatu den (ABD-002/003)**

Gauza gutxirekin pozik bizi ziren gaztetan. Abarketa berriak estreinatzeko pozez egoten ziren. "Ave maria"tarako etxera itzuli behar izaten ziren, bestela haserre egiten zieten. Bizimodua nola aldatu den.

#### **14. Bizimodu gogorra; astoarekin gertatuak (ABD-002/004)**

Behin ortuariak saltzera astoarekin Durangora zihoala gertatu zitzaiona. Urkiolara iratara joaten zirenean, asto gainean joaten zen. Bidean lo-kuluxkak egiten zituen. Bizimodu gogorra bizi izan du, baina orain ondo bizi ei da.

### **15. Muxu ematea bekatu (ABD-002/007)**

Lehen mutilei muxu ematea bekatua zen eta konfesatzera joan behar izaten ziren. Eskutik oratzeko ere beldurrez. Bizimodua nola aldatu den. Ondo ikusten du elkar maite dutenek elkarri muxuak ematea.

### **16. Damuagatik ez, beldurragatik joaten ziren konfesatzera (ABD-002/009)**

Elizak izan dituen aldaketak gustatzen zaizkiola dio. Lehen gauza txiki bakoitzarekin konfesatzera joan behar izaten ziren. Gainera, ume asko ekarri behar zirela esaten zien abadeak, bestela infernura joango zirela. Damuagatik baino gehiago beldurragatik joaten ziren konfesatzera.

### **17. Babak, urte guztiko jatekoa (ABD-002/011)**

Urte guztiak babak jaten zituzten. Intxaurrak eta sagarrak ere bai, sasoiak. Noizean behin laranja bat jatea luxua zen. Bizimodua nola aldatu den.

### **18. Zakua buruan ipinita, iratarra basora (ABD-002/013)**

Gaztetan basora joaten ziren ira ebakitzera. Euria egiten zuenean, aterkirik ez, eta zakua buruan jarrita. Tomatea edo piperrak eramaten zituzten maletan bazkaltzeko. Baso desberdinetan zebiltzan gazteek bidean topo egiten zutenean, kantuan eta dantzan itzultzen ziren etxera.

### **19. Arrazola; auzoan eta bizimoduan aldaketak (ABD-002/014)**

Arrazola nola aldatu den. Garai batean soroak zirenak gaur egun zelai dira. Baserri asko desagertu dira, eta auzoan jendea gutxitu. Lehen ez zegoen ez kotxerik eta ez bizikletarik. "Karrakia" esaten zioten autobus zahar bat egon zen zapatuetan andreak Durangora eramateko. Nola aldatu den auzoko bizimodua.

### **20. Lehen ipuin asko kontaktzen zitzaizkien umeei (ABD-002/016)**

Lehen umeei ipuin gehiago kontaktzen zitzaizkien. Orain desberdina da kontua, bi urte orduko umeak eurak hasten direlako ipuinei begira. Eurak artoa zuritzen zutenean amari edo amamari eskatzen zioten ipuinak kontaktzeko. Anbototik Oizera sorgina sugarretan joaten zela eta halakoak kontaktzen zizkieten.

### **21. Abade ehiztariaren ipuina (ABD-002/017)**

Etxean entzundako ipuina. Abade bat ba omen zen ehiztaria. Behin meza ematen ari zela, txakurrak erbia eraman zion elizara. Meza emateari utzi eta erbiaren atzetik joan omen zen. Bidegurutzeetan hildakoak irteten zirela ere esaten zuten. Beraiek dena sinisten zuten.

### **22. "Markosek egin eban..." kanta (ABD-002/020)**

Amama eta bilobatxoak elkarrekin kantuan. "Markosek egin eban...".

### **23. Amama eta bilobak elkarrekin kantuan (ABD-002/022)**

Amama eta bilobatxoak elkarrekin kantuan. "Matxalen Busturiko" eta "Durangon bazkalduta..." kanta abesten dituzte.

#### **24. Ardi baten inguruko pasadizoa (ABD-004/001)**

Ardi baten inguruko pasadizoa. Antza denez, beldurtuta, ardia eliza barrura sartu zen eta jaiotzaren ondoan aurkitu zuten.

#### **25. Irrintzi txapelketak irabazi izan zituen (ABD-004/003)**

Irrintzi-txapelketan parte hartu zuenekoa. Beste partaideak. Hasieran hiruna irrintzi bota zituzten. Gero, arnasa batean zeinek eupada handiagoa egin. 15 segundorekin berak irabazi zuen. Hurrengo urtean Bilboko lehiaketara joan zen eta han ere irabazi.

#### **26. Kanta zaharrak gogoan (ABD-004/004)**

Kanta eta bertso zaharrak gogoan hartzen zituen eta gero kantatu egiten zizkion beste gizon bati. Oroimen ona zuen, eskolara joan ez arren.

#### **27. Kanta-paperak ferietan edo erromerietan (ABD-004/007)**

Zumarragara feriara joan zen batean erosi omen zituen `Txirrita´ren bertsoekin kanta-paperak. Baina segituan galdu egin omen zitzaizkion. Gerora erromerietan erosten zituen. Txakur handi bat balio izaten zuen bakoitzak. Beti haiekin ibiltzen zela-eta, amak denak apurtu ei zizkion.

#### **28. Maisu galziarra; nesken eskola (ABD-004/008)**

Eskolara ez zela hiru hilabeteen ere joango dio. Maisu galziar bat izan ei zuten; makilarekin jotzen zituen. Nesken eskola eta maistra.

#### **29. Bi mutikok maisua lotu zuten balkoian (ABD-004/010)**

Maisuak eskolarik erakutsi ez eta jo egiten zituen. Behin herriko bi mutikok soka ekarri eta balkoian lotuta ipini zuten maisua.

#### **30. Don Lukas abadea (ABD-004/011)**

Dotrina ikastera elizara joaten ziren. Don Lukas abadearen inguruko kontuak.

#### **31. Arabara erdara ikastera joan eta euskara ahaztu (ABD-004/013)**

Aitak eta amak ez zeukaten eskolarik. Aitak gaztelaniaz zerbait bazekien, baina amak ezer ere ez. Bera Arabara joan zen erdaraz ikastera;13 urterekin joan eta 15 beteta itzuli. Euskara guztiz ahaztu ei zitzaion, eta itzuli zenean amak jo egiten zuen erdaraz hitz egiten ziolako. Gehiago erdaraz ez egitea erabaki zuen, eta hasieran hilabete inguru inori hitzik egin gabe egon zen.

#### **32. Ardiekin estraperlora Nafarroa aldera (ABD-004/014)**

Araban erdara ikasten egon zen lekuan taberna eta harategia zituzten. Gaez Nafarroa aldera joaten zen estraperlora, ardiekin. Behin harrapatu egin zuten eta 1000 pezeta ordaintzeko eskatu zioten. Etxekoandreak eta nagusiak gero esan ziotena. Familia ona zen eta gustura egon zen bertan.

### **33. Okerrez astoa hil zuenekoa (ABD-004/018)**

Berari gertatutako pasadizo bat kontatzen du. Etxe ondoko oilo-toki batean oiloak falta izaten ziren eta bertakoak euren sospetxa zuen. Bera zain-zain egon zen oiloen lapurrak harrapatzeko eta kolpea tira zuenean, astoa hil zuen, okerrez. Jabeari ordaindu egin behar izan zioten gero.

### **34. Urkiolara bidean gertatutako pasadizoa (ABD-004/021)**

Urkiolako elizan obran lanean zebilen mañariar bati gertatutako pasadizoa. "Karreteroek" marmol-harria garraiatzen zuten. Bidean topo egin, uztarrarian zihoan idia jo eta adarra kendu ei zion zuztarretik.

### **35. Familia handiak (ABD-005/002)**

Etxe bete jende bizi ziren lehen: aitita-amamak, familiako neska-zahar bat, gurasoak eta sei seme-alaba. Bera izan da gazteena.

### **36. Mendiolakoak auzoko eskolan (ABD-005/003)**

Mendiolakoak auzoko eskolan ibiltzen ziren orduan. Bost urterekin hasi eta hamalau urtera arte egon zen eskolan Enrike. Geroago hasi ziren inguruko gazteak Durangoko Maristetara joaten, bere sasoian oraindik ez.

### **37. Bizikletaz fabrikara (ABD-005/004)**

Hamabost urterekin hasi zen fabrikan, Durangon, beharrean. Bizikletaz joaten zen bertara, baina orduan oraindik ere ez zegoen bizikleta askorik.

### **38. Pilotan eskolako hormaren kontra (ABD-005/005)**

Eskolan neskak eta mutilak banatuta egoten ziren. Maistra eduki izan dute beti. Eskola ederra zen, baina ez zeukan frontoirik eta eskolako hormaren kontra egiten zuten pilotan.

### **39. Eskolako atsedendialdiak (ABD-005/006)**

"Txirinkillan" jolasten zuten eskolako atsedendian. Hala ere, neguan basora joan behar izaten zuten egur bila, maistrak zeukan estufan sua egiteko.

### **40. Eskolan matematikak eta geografia ikasten (ABD-005/007)**

Eskolan matematikak ikasten zituzten eta baita Espainiako geografia ere. Maistrarekin oso pozik egon ziren.

### **41. Eskola sasoian Eguen Zuri batzen (ABD-005/008)**

Eguen Zuri batzen zuten eskola sasoian. "Eguen zuri gordetan, asmo onegaz kantetan..." abesten zuten, mutilek mutiletara. Jatekoa batzen zuten orduan, dirurik ez.

### **42. Eskolan, 'Cara al Sol' abesten (ABD-005/009)**

Gerraostean, Cara al Sol abestu behar izaten zuten eskolan. Bikoteka jarrita egiten zuten, eskuak altxatuta, eta ondoren eskolara sartzen ziren. Gerraosteko lehenengo urteetan, Abadi&ntilde;otik beste maistra batzuk etortzen zitzaizkien eskolara.

#### **43. Abadea eskolara dotrina irakasten (ABD-005/010)**

Astean behin Abadi&ntilde;otik abade bat etortzen zitzaien eskolara dotrina irakasten. Hala ere, lehenengo jaunartzea prestatzeko, Abadi&ntilde;ora joan behar izaten zuten.

#### **44. Gerra sasoiaren Mendiolako ermitan meza (ABD-005/011)**

Gerran, sasoi batean zenbait abade hil zituzten Gipuzkoan eta beste batzuek ihes egin behar izaten zuten. Horrela, aitaren lehengusu abade bat etorri zen Mendiolara eta berak esan zuen meza Mendiolako ermitan han egon zen artean. Bestela, Abadi&ntilde;ora joan behar izaten zuten meza entzuten.

#### **45. Ebakuazioan ganaduak etxetik atera behar (ABD-005/012)**

Gerra sasoiaren, ganaduak atera zituzten etxetik aita eta seme bik. Lehenengo Zornotzara eraman zituzten eta gero Sopuertara. Sopuertan esnea saltzen zieten soldaduei, askotan urarekin nahastuta.

#### **46. Ebakuazioan osabaren etxera, Abadiñora (ABD-005/013)**

Ebakuazioan, milizianoak etorri zitzaizkien etxetik ateratzen. Lehenengo Abadiñora jaitsi ziren osabaren etxera, baina egunez meatze-zulo batera joan behar izaten zuten babes bila. Frontea pasatzen ari zenean, atak itxi eta etxe barruan egon behar izan zuten.

#### **47. Bonbardaketak ama Durangon harrapatu zuen (ABD-005/014)**

Durangoko bonbardaketa egunean ama egon zen bertan jeneroa saltzen. Santa Maria eliza ondoan zegoen denda batean harrapatu zuen bonbardaketak; mostadorearen azpian sartu eta onik irten ziren bertan zeuden guztiak.

#### **48. Soldaduek etxeetan egindako hondatzeak (ABD-005/015)**

Astiro-astiro etxera bueltatzen hasi ziren gerra pasatu eta gero. Hala ere, askok etxea hondatuta topatu zuten eta lapurretak ere ugariak ziren orduan. Intxaldeko baserrian soldaduek egindako hondatzeak kontatzen ditu pasarte honetan.

#### **49. Gerra sasoiaren gogorra kanpoan zeudenen senideentzat (ABD-005/016)**

Oso gogorra izan zen gerra sasoiaren. Ez zeukaten senideen berririk eta etxeok aurrera egin behar izan zuten ganadu barik. Anaia zaharrena ere Ebroko frontera eraman zuten hamazortzi urte zituela.

#### **50. Saibiko batailan hildako asko (ABD-005/018)**

Saibin egondako bataila batean soldadu asko hil zen. Urkiolarako bidean hildako gizon horiek guztiak ikusi zituzten bide bazterrean.

### **51. Mendiola, "Madril txiki" (ABD-005/019)**

Euren auzuneari, Mendiolari, "Madril txiki" esaten zioten, leku txikian jende asko bizi zelako. Gero, jende askok utzi zuen baserria kalera bizitzen joateko.

### **52. Mendiolako tabernak (ABD-005/021)**

Mendiolan Orondo taberna ezagutu du beti. Eurenean ere taberna egon zen sasoi batean, bera jaio aurretik. Pasarte honetan auzoan egon diren beste taberna batzuen gainean ere hitz egiten du.

### **53. Irazolan Santa Eufemia ospatzen da (ABD-005/022)**

Irazolako ermita Santa Eufemia da eta hantxe bertan ospatzen da jaia irailaren hamaseian, Santa Eufemia egunean.

### **54. Gari-beharrak (ABD-005/024)**

Garia igitaiarekin mozten zuten eta eskutadak prestatzen zituzten. Sikatzen utzi ondoren, metak egiten zituzten eta eguna heltzen zenean jo egiten zuten. Gero, makinak agertu ziren eta eurek egiten zuten beharra.

### **55. Garia eta artoa errotara (ABD-005/025)**

Garia errotara eramaten zuten eta handik irina ekartzen zuten ogia egin ahal izateko. Artoa Atxarteko errotara eramaten zuten, baina garia Abadiñora edo Mañarira eraman behar izaten zuten.

### **56. Ogia eta artoa (ABD-005/026)**

Gari-irinarekin ogia egiten zuten eta arto-irinarekin artoa, ogi gorrixka moduko bat. Irina erabili aurretik galbahetik pasatzen zuten, oreka egin eta ondoren labera.

### **57. Morokila, taloa eta ahia (ABD-005/027)**

Morokila eta taloa arto-irinarekin egiten zuten eta ahia gari-irinarekin. Jateko hauek zelan egiten zituzten azaltzen du du pasarte honetan.

### **58. Garia ereiten (ABD-005/028)**

Garia ereiteko lurrari buelta eman behar zaio goldearekin. Azaroan ereiten zen gari garaua. Sasoi batean, batzen zutenaren zati bat entregatu behar izaten zuten udaletxean.

### **59. Komentuetakoak borondatea batzen etxerik etxe (ABD-005/029)**

Komentuetakoak etxerik etxe ibiltzen ziren zaldiz. Jatekoa eskatzen zuten, borondatea.

### **60. San Juan (ABD-005/030)**

San Juan egunean, sahatsez egindako gurutzeak bedeinkatzen zituzten elizan. Gero soro bakoitzean gurutze bana sartzen zuten. Bezperan, hiru belar mota erretzen zuten San Juan sua egiteko.

### **61. Pagonabarraga abizenaren jatorria (ABD-008/002)**

Bere aitaren aldeko senitartekoak ere,, Pagonabarraga abizenekoak, ere bertakoak ziren, Muntzaratz auzoko Bolinaga "Boliña" baserrikoak. Pagonabarraga izeneko etxea Atxondoko Arrazola auzoan dago eta han du jatorria bere abizenak.

### **62. Eskolan gutxi ikasi zuten (ABD-008/008)**

Umetan beti zuten baserrian lan egin beharra. Eskolari ez zitzaion garrantzirik ematen. Denak joaten ziren eskola berera, neskak eta mutilak banatuta. Zazpi urterekin hasten ziren eta 14 urtera arte joaten ziren. Fidelak dio gerraren ondorioz, maistrak sarri aldatzen zizkietela eta gutxi ikasi zutela. Alfonsok maisua euskararen arerio zela dio eta erdaraz egin behar zutela. Alfonso fraidetzara nahi izan zuten bideratu. Abadiñoko udaletxea dagoen tokian zegoen orduko eskola.

### **63. Maisuak euskarazko dotrinagaz harrapatu eta jo zuenekoa (ABD-008/009)**

Dotrina herriko abadeak ematen zien eta euskaraz jasotzen zuten. Behin eskolan, erdarazko koadernoaren azpian jarri zuen euskarazkoa eta maisuak harrapatu zuen. Palu batekin matrailean jo eta bi arraia marraztu zizkion, espainiar bandera marraztu balio bezala.

### **64. Eskolara joan barik, baserriko lanetan (ABD-008/010)**

Baserrian beti zuten lan asko eta askotan ez zuten eskolara joateko astirik. Itaurrean, behien aurretik, joaten ziren sarritan soloa landuz. Maisu-maistrak ere erdaldunak ziren eta horrek asko zaildu zuen ikasteko prozesua.

### **65. Eskolara oinez (ABD-008/011)**

Muntzaratz auzotik Abadiñoko Zelaietara joaten ziren eskolara. Egunero joan behar izaten ziren haraino, eguerdian etxerako joan-etorria eginez. Orduan errepidean ez zebilen autorik, gurdi batzuk baino ez. Zelaietako eskolan Abadiñoko zein auzotakoak batzen ziren azaltzen dute, Durangoko baserri batzuetakoak ere bertara joaten ziren.

### **66. Eskolan ez zuten azterketarik izaten (ABD-008/013)**

Alfonsok dio berak ez zuela eskola-libururik; Fidelak, ostera, entziklopedia du gogoan. Dotrina abadeak ematen zien goiz erdian eskolatik udaletxeko areto batera joanda. Nahiz eta ez ikasi askorik, emaitza onak izaten zituzten beti. Alfonsok bere bizitzako lehen azterketa gidatzeko baimena ateratzerakoan egin zuela du gogoan.

### **67. Abadiñon ez zekien ia inork erdaraz (ABD-008/014)**

Maisu-maistrak erdaldunak izan arren, beraien artean dena egiten zuten euskaraz. Abadiñon oso gutxik zekien sasoi hartan erdaraz. Pertsona nagusiek ez zekiten erdaraz. Horri buruzko anekdota bat kontatzen du Alfonsok.

### **68. Etxean ere jasotzen ziren erlijio ezagutzak (ABD-008/015)**

Eskola derrigorrezkoa zen eta dotrina hautazkoa; hala ere, dotrina ere derrigorrezkotzat zuten. Beraiek ere beraien seme-alabei etxean irakatsi zizkieten euskarazko errezoak. Etxean ere arrosarioa egunero errezatzen zuten.

### **69. Mutikoetako jolasak: txapuetan, txirikiletan... (ABD-008/016)**

Eskolako jolasaldian zertara jolasten zuten: pilotan, tronpan, txapuetan (pospolo kaxekin)... Fidelak gutxi jolastu zuen umetan, ahizpa mutua zaindu behar izaten baitzuen. Txirikiletan jolasari buruzko azalpenak ematen ditu Alfonsok. Behin istripu txiki bat izan zuen Alfonsok txirikiletan zebilela.

### **70. Pilotak eta panpinak (ABD-008/018)**

Pilotan aritzen ziren mutikotan. Etxean egiten zituzten pilotak. Fidelak umetan bazituztela panpinak dio, baita horiek eramateko aulkitxoak ere. Alfonsoren etxean hamar neba-arreba ziren eta sekula ez zuen panpinarik ikusi; Fidelarenean hiru ume baino ez ziren.

### **71. Baserrian urte osoan zuten lana (ABD-008/020)**

Baserriko kontuak eta lehen zuten bizimodua ezin daitekeela kontatu dio Fidelak: "ezin da sinetsi zenbat lan egin behar zen". Patata, artoa, garia, ira... urte osoan zehar zuten lana. Bizimodua baserritik atera behar zen eta egin beharra zegoen, besterik ez.

### **72. Errazionamendua urte askoan (ABD-008/021)**

Gerra garaian hasita handik urte askoan oraindik ere, ogia eta beste hainbat gauza errazionamenduan hartzen zituzten. Hala ere, ogia, taloa zein morokila etxean egiten zuten.

### **73. Gari lanak eskuz egitetik makinaz egitera (ABD-008/024)**

Antzina gari lanak eskuz egiten ziren. Gero makinak etorri ziren eta beharrok erraztu zituen.

### **74. Garia: erein, ebaki, eskutak egin, jo... (ABD-008/026)**

Garia Domu Santuetatik Gabonak bitartean ereiten zen. Ekaina bukaera aldean, San Pedro inguruetan, ebakitzen zen. Gari lanetan makinek lana asko erraztu zuten. Gari-eskutak lastoarekin berarekin lotzen zituzten. Gari-eskutak zelan jotzen zituzten.

### **75. Errotara irina egiten (ABD-008/027)**

Inguruan errota asko zituzten, horietako batzuk aipatzen ditu Alfonsok. Eroandakotik ehuneko hamarra kentzen zien errotariak eta gainerakoa etxera ekartzen zuten.

## **76. Artoaren atal guztiak aprobetxatzen dira (ABD-008/029)**

Artoaren atal guztiak aprobetxatzen dira: artaburua, artondoa (lastoa), maluta... Ez dute malutaz egindako koltxoirik ezagutu.

## **77. Zer da "galine"? (ABD-008/030)**

"Galine" zer den azaltzen dute.

## **78. Zer dira "artondoa" eta "maluta"? (ABD-008/031)**

"Artondoa" eta "maluta" zer diren azaltzen dute.

## **79. Tabakoa ereiten (ABD-008/033)**

Arto-bizarrak agian mutikotan erretzen zela diote, baina ez dute gogoan. Alfonso umea zela, tabakoa ereiten zuten etxean; tabakoaren lan-prozesua azaltzen du. Auzoko batzuek luzaroan erein zuten tabakoa. Maiatza inguruan ereiten ei zen eta urri aldera batu.

## **80. Ilargiaren garrantzia (ABD-008/034)**

Ilargiak garrantzia handia zuen baserriko behar askotan. Esate baterako, txerria beti ilbeheran hiltzen zen. Soloko beharretarako ere beharrezkoa zen ilargiari erreparatzea.

## **81. Iratan basora (ABD-008/036)**

Fidelaren etxeok iratan San Fausto inguruan joaten ziren, pare bat egunez aritzen ziren behar horretan lagun asko batzen baitziren; Alfonsoren etxeok, ostera, hiruzpalau hilabetez aritzen ziren. Asko Urkiola aldera joaten ziren. Gurdia erabiltzen zuten ira garraiatzeko.

## **82. Gurdia eta bere lexikoa (ABD-008/037)**

Aurreko pasartean iratan gurdiarekin joaten zirela kontatu dute. Pasarte honetan gurdi horiek zelakoak ziren azaltzen digute. Marrazki bat aurrean dutela, gurdiaren erabilera eta honen atal desberdinei zelan deitzen zieten azaltzen dute.

## **83. Uztarria eta bere lexikoa (ABD-008/038)**

Ganaduari jartzeko uztarriaren marrazkiari begira, atal desberdinen izenak aipatzen dituzte.

## **84. Uztarriko ardi-larrua eta zapak (ABD-008/040)**

Ganaduari jartzeko uztarriaren marrazkiari begira, ardi-larrua eta zapak zertarako erabiltzen ziren azaltzen dute.

## **85. Goldearen erabilera (ABD-008/045)**

Behiak labrantzarako erabiltzen zituzten, goldearekin. Goldea zelan erabiltzen zen eta zelan dabilen azaltzen du Alfonsok.

## **86. Area eta narra (ABD-008/046)**

Labrantzan goldea pasatu ostean, area eta narra pasatzen zituzten.

### **87. Neba-arrebak gazterik hil (ABD-010/003)**

Bost neba-arrebatatik hiru gazterik hil ziren: zazpi, hamalau eta hamazortzi urterekin. Bi nebak garrotilloak jota eta erreta hil ziren; zazpi urte zituela sutan zegoen galdarara erreta hil zen bata. Ahizpa bat gerra garaian, biriketakoak jota (pulmonia) hil zen, botikarik eza nabarmena baitzen garai hartan.

### **88. Umetan lan eta lan (ABD-010/004)**

Bost neba-arrebatatik zaharrena eta andrazkoa zenez, goizean goizetik edozein motatako lanetan aritzea egokitu zitzaion. Ez zuten pentsatu ere egiten egin behar ez zenik.

### **89. Amaitermingo eskolan maistra erdalduna (ABD-010/006)**

Zazpi urtegaz auzoan zuten eskolara hasi ziren. Bertan ikasi ei zuten erdara apur bat, defendatzeko beste. Maistra Gasteiztik etortzen zen eta bertan pasatzen zuen astea; ez zekien euskaraz. Amaitermingo umeak eta inguruko auzoetakoak, baita Dima aldekoak ere, bertara joaten ziren. Ume guztiak elkarregaz egoten ziren. Etxean lan asko zutenean, ezin izaten zuten eskolara joan.

### **90. Gerra etxean bertan (ABD-010/008)**

Gerra hasiera ondo gogoan du. Etxetik hurre dute Otxandion eta han asko hil zituzten bonbardaketan. Beraien etxean ez zuten zorte txarrik izan, beste asko hil edo zauritu egin ziren-eta. Etxetik alde egiteko asmoa zuten, baina ez zioten asitik eman eta etxean egon ziren gerra garaian.

### **91. Morroia baserriko lanetarako (ABD-010/009)**

Etxean beti izan zuten morroi bat, baserriko lanetan laguntzeko. Jornala ordaintzen zioten morroiari.

### **92. Baserriko lana eskuz (ABD-010/010)**

Gaur egun baserrian makinekin lan asko egiten dela dio, lehen, ostera, dena egin behar zuten eskuz. Idiekin goldea eta area ibiltzen zituzten. Laietan ere ibili izan da ortuak lantzeko.

### **93. Lurrarekin lanketa; elurrarekin ezin lanik egin (ABD-010/012)**

Lurra lantzeko prozesua: triki-traka pasatu, goldearekin goldatu, hazia botatzeko prestatu... Udaberriko lana zen. Elurrik ez zegoenean, beti zuten beharra. Elurra egiten zuenean ezin zuten ezer egin, ganaduak gobernatu baino ez.

### **94. "Gorrien bidea" (ABD-010/016)**

"Gorrien bidea" edo ahoz dioen legez "gorridxen kamiñoa" deritzena non zegoen eta zer zen azaltzen du. Arabarrek eta bizkaitarrek han ei zuten gerra garaian muga.

## **95. 200 buruko artaldea (ABD-010/020)**

Baso beharretan ere ibilitakoa da: iratan, ardiak eramaten... 200 buruko artaldea zuten, neguan denak kortan gorde behar.

## **96. Ardi-gazta egiteko prozesua; legarra (ABD-010/022)**

Ardi-gazta egiteko prozesua azaltzen digu Cristinak pasarte honetan pausuz pausu: esnea batu, epeletan legarra bota gogortzeko... Etxean egindako gazta etxean bertan saltzen zuten. Gatzura txahalei eta txerriei ematen zieten. Gazta bat egiteko hiru azunbre inguru behar ziren; azunbre bat bi litro neurtzeko neurriari deritzo. Gaztanontziak zelakoak ziren ere azaltzen du. Hego haizea egiten baldin badu, gazta lehenago sikatuko da; haizeak ebaki edo harrotu egin dezake eta kontuz ibili behar da. Behiaren esnea Gasteizera saltzen zuten. Legarra bildotsak sabelean duen poltsa bat da, esnez beteta izaten duena. Hura sikatzerakoan gazta egiten da harekin.

## **97. Gatzatua zelan egin (ABD-010/024)**

Gatzatua etxean egin dute beti, baina berari ez zaio gustatzen. Beraienean gatzatua zelan egiten duten azaltzen du.

## **98. Artilea eta ardi-larrua hainbat gauzatarako (ABD-010/025)**

Artilearekin galtzak, trailak (abarka-kordelak)... egiten zituzten bere gurasoek. Artilea zelan landu behar den azaltzen du. Ardiari ilea San Antonio inguruan (ekainaren 13an) mozten zaio; eskuz egiten zuten, ardi-artaziekin. Artzainak etxez etxe ibiltzen ziren ardiei kapak kentzen. Traperoak ere ibiltzen ziren batetik bestera. Idi-buztarrirako ere ardi-larrua erabiltzen zen. Ardi-larruak ez du behar lanketa askorik. Ganbaran bertan sikatzen zuten eta forma emateak ere ez ei du lanik ematen.

## **99. Artilezko koltxoiak (ABD-010/026)**

Artilezko koltxoiak izaten zituzten, beraiek egindakoak. Errekan garbitzen zituzten "barreiño" baten ur epeletan beratzen edukita. Garai hartan ardi (arkakuso) asko batzen ziren.

## **100. Artilea eta trailak (abarka-kordelak) (ABD-010/028)**

Artilea behin eta berriro kardatuz lortzen zen. Trailak (abarka-kordelak) egiten zituen bere aitak.

## **101. Ardi-larruzko abarkak josi (ABD-010/029)**

Ardi-larruzko abarkak egiten zituen bere aitak. Zelan egiten zituen azaltzen du.

## **102. Argindarra, karburua eta farola (ABD-010/032)**

Argindarra auzoan dagoen errotatik hartzen zuten. Gainerakoan, karburua eta farol barruko kandelak erabiltzen zituzten. Karburua zelakoa zen azaltzen du, oso ohikoa zen bere erabilera. Sarritan ilundu orduko egin behar izaten zituzten kortako beharrak.

### **103. Sekula ur faltarik ez (ABD-010/033)**

Sekula ez dute ur faltarik izan; iturria zein erreka etxe ondoan baitituzte. Erreka neguan izoztu egiten zen. Ikusi izan ditu mutikoak erreka gainean bizikletan ibiltzen. Edateko ura iturritik hartzen zuten eta garbitasunerako eta ganaduarentzako errekatik. Uholdeak izan arren, sekula ura ez da goraino igo.

### **104. Herri basoak eta ikazkinak (ABD-010/035)**

Iratan eta egurretan herriko basoetara joaten ziren. Gaur egun, ordea, denean dago pinua. Ikazkinak basoan aritzen ziren txondorrek egiten.

### **105. Otxandioko erromeria (ABD-010/038)**

Domeketan Otxandion egoten zen erromeriara joatea derrigorrezkoa zen. Musika banda egoten zen herriko plazan. Amaitermin auzokoak denak joaten ziren Otxandiora. Bertan ezagutu zuen bere senarra ere. Ematen ei zioten elkarri musu, baina inoiz ez jendaurrean.

### **106. "Primer viernes"a (ABD-010/043)**

Hilabeteetako lehen ostiraletan "primer viernes" delakoa izaten zen Otxandion. Konfesatzera joan behar izaten zuten.

### **107. Lotuta dantza egitea debekatuta (ABD-011/002)**

Dana zen bekatua lehen. Abadiñon sasoi batean lotuta dantza egitea ere debekatuta egon zen. Falangista batek eman zuen debekua. Gazteluko jaietan dantza egitearrean mutilei 15 pezetako isuna jarri zieten eta neskei hamar pezetakoa.

### **108. Etxean behar handia eta eskolara gutxi (ABD-011/004)**

Umetan behiekin behar egin behar izaten zuten, itaurrean, eta basoan behorregana joan. Eskolara Abadiñora joan zen Jose, eliz ondora. Hala ere, gutxi joan zen, etxean behar handia zegoen eta. Orain udaletxea dana zen euren eskola.

### **109. Eskola erdalduna Abadiñon (ABD-011/005)**

Primo de Riveraren sasoi ibili ziren eurak eskolan, Toledoko maisu batekin. PNV-ko batek eskola bat eduki zuen eta maisu honek salatu egin zuen eta itxiarazi. Erdaraz egiten zuten eskolan. Modua zuenak Maristetara joaten zen; besteak, beharrera.

### **110. Auzoetako eskoletan neska eta mutilak elkarrekin (ABD-011/006)**

Lehen denak Abadiñora joaten ziren eskolara, baina gero Trañan eta Mendiolan egin zituzten eskolak. Trañan neskak eta mutilak elkarrekin ibili ziren; Abadiñon, ostera, banatuta. Trañan Axpeko maistra eduki zuten, gogorra, esku bizkorrekoa.

### **111. Gerraostean euskara galarazi zuten (ABD-011/007)**

Trañako maistra guztiak euskaldunak izan ziren. Gerraostean galarazi zuten euskara. Galdakaoko alkate batek kanposantuko euskarazko berbak ere kenarazi zituen gerraostean.

### **112. Matiena toponimoa taberna baten izenetik ei dator (ABD-011/009)**

Matiena ez ei da existitzen, Traña da. Abadiñon bertan ere badaude Traña diren parteak. Andre batek Trañan ei zeukan taberna. Hark Maite zuen izena eta jendeak Maitenera zihoala esaten zuenez, Matiena geratu zen inguruko izen lez.

### **113. Nesken jolasak (ABD-011/011)**

Neskek sokan egiten zuten eta etxeko andreetara jolasten zuten. Ez zitzaion asko gustatzen sokan salto egitea, baina maistrak derrigortu egiten zuen. Kautxuzko panpin bat ere eduki zuen Deograsiasek. Nagusiagotan josten jolastea gustatzen zitzaion.

### **114. Bilbon maistra batengana eskola ikasten (ABD-011/013)**

Gerraostean, Bilbora joan zen Deogracias. Lehengusuak ez zuen nahi Basurtutik La Casillako eskolara joan zedin eta maistra batengana bidali zuen. Han erdaraz zen dena. Abadiñora bueltatu zenean ere, eskolan jarraitu zuen, mojekin.

### **115. Ama Durangoko bonbardaketan hil (ABD-011/014)**

Deograciasen ama Durangoko bonbardaketan hil zen. Ama egunero joaten zen esnea saltzera Durangora. Ondoko baserriko bat joan zitzaien Bilbora ama hil dala esaten. Goitik behera beltzik jantzi zuten Deogracias.

### **116. Mutilek esku-pilotan eta "txirinkillan" (ABD-011/016)**

Mutilek esku-pilotan jolasten zuten, ortozik oinetakoak ez apurtzeko. Piloak eurek egiten zituzten, gomarekin eta artilearekin. "Txirinkillan" ere jolasten zuten mutilek. "Txirinkilla" palu bat da eta hura ahalik eta urrinen botatzen zetzan jolasa.

### **117. Garizuman txakolina eta intxaurrak (ABD-011/017)**

Garizuman mezara joaten ziren arratsaldero eta gero txakolina eta intxaurrak-edo hartzen zituzten. Abestu ere egiten zuten.

### **118. Borroka latzak Eibar inguruan eta Saibin (ABD-011/021)**

Tiro-hotsa entzuten zen gerra sasoian. Borrokak zazpi-hilabete edo iraun zituen Eibarren eta Saibitik pasatzea ere asko kostatu zitzaien. Behin Intxorta hartu zutenean denak pasatu ziren ilaran.

### **119. Gerra sasoian, jende asko joan zen Santander aldera (ABD-011/022)**

Eurek ez zuten etxetik irten behar izan, baina asko Santander aldera joan ziren ganaduekin. Milizianoek etxeak hartzen zituzten eta baita ganaduak ere. Frontea Eibarren egon zen artean, Berrizko baserri-etxe batean egon ziren. Nazionalak sartu zirenean jende asko sartu zuten kartzelara.

### **120. Bilbon egunero azunbre bi esne saldu (ABD-011/023)**

Deograciasek Bilbon pasatu zuen gerra, familiako batzuen etxean. Han azunbre bi esne eramaten zuen egunero tabernara eta gero ardoarekin betetzen zituen kantinak. Bendeja ere saltzen zuten, baina batez ere loreak saltzen zituzten postuetan.

### **121. Hamahiru urterekin morroi Berrizera (ABD-011/024)**

Jose hamahiru urterekin morroi ("krixau") joan zen eta hamasei urtera arte etxe bitan egon zen, Berrizen. Hogeita bost ogerleko ematen zizkioten urtean eta trajetxo bat.

### **122. Pinua sartu zenean hasi ziren basoko beharrak (ABD-011/025)**

Lehen ez zegoen beharrik basoan, pinua sartu zen arte. Orduan GMC-ak sartu zituzten eta basoan beharrean zeuden idiak ere akabatzen zituzten kamio horiek. Hasieran kamioak kargatzeko bultzaka egiten zuten, eskabadorak etorri ziren arte. Orain leku guztietan sartu dira makinak.

### **123. Lur onak inguruan (ABD-011/027)**

Inguruan lur ona egon izan da. Artoa eta baba ereiten zuten eta ganaduentzako erremolatxa, naboa, frantsesa eta sekula-belarra. Gainera, Gaztelun gari onak eduki izan dituzte. Garia ogirako ereiten zuten, labesua egiteko. Zortzi egunerako egiten zuten labesua.

### **124. Errotak itxita gerraostean (ABD-011/028)**

Francoren sasoian, falangistek errotak zabalik izan zituzten eta besteek itxita. Horregatik, jendeak Arratia aldera-eta joan behar izaten zuen astoekin. Gero, garia, patata eta artoa ere entregatu behar izaten zituzten.

### **125. Lagunekin hika, beraien artean zuka (ABD-014/002)**

Eskolara elkarrekin joan arren, gazte denboran ez ziren askorik ibili elkarrekin. Gainerako lagunekin hika egiten zuten berba, baina beraien artean ez.

### **126. Benediktaren etxea gerran erre (ABD-014/006)**

Mendiolako Larringan baserrian jaio zen Bendikta, hiru etxe dira. Horietako bat haize-errota da; nortzuk bizi ziren bertan aipatzen dute. Benedikta eta bere etxeok ere bizi ziren etxe horretan gerraostean, gerra garaian etxea erre zitzaian-eta. Pinu-egurragaz jaso zuten etxe berria, arineketan.

### **127. Larringaneko haize-errota; behientzako iratan (ABD-014/008)**

Larringaneko haize-errota, izenak berak dioskun legez, haizearen indarrak jartzen zuen martxan. Benediktan ez zuen ezagutu haize-errota martxan, baina ira zapaltzen zelan ibiltzen ziren gogoan du. Behiei azpiak egiteko erabiltzen zuten ira. Ia Urkiola ondoraino joaten ziren iratan.

### **128. Umetatik iturrean (ABD-014/010)**

Beraiek umeak zirenean Mendiolako bizimodua zelakoa zen kontatzen dute. Behien aurrean iturrean zein ur bila, beti aritzen ziren beharrean. Eskolara "patx egin" (sasieskola) ere egiten zuten, baserriko beharrak

garrantzitsuagoak ziren sarritan-eta. Behien aurretik iturrean joatea baino, txarragoa ei da atzetik joatea. Denek ez zuten balio itaurilarirako.

### **129. Lurra lantzeko tresnak (ABD-014/011)**

Burdinarea, triki-trakea, area, narra, goldea... ziren lurra lantzeko tresnak. Bakoitza zertarako erabiltzen zen. Bien etxeetan laiaketan ibili izan ziren, baina beraiek ez dira aritu horretan; indar asko behar zen.

### **130. Gari-lanak; trilladorea (ABD-014/012)**

Garia azaroan ereiten da. Erein eta gero ez da jorratu behar. Hazten utzi, ebaki eta jo egin behar izaten zen. Hasieran eskuz jotzen zen, makinaz jotzen hasi aurretik. Benediktaren etxera trilladorea heldu zen, Marirenera ez. Trilladoreak garia zakuetan sartu eta galtzua sabaira botatzen zuen. Elkarri laguntzen zioten auzokoek, norbere lanak eta besteenak erraztuz eta murriztuz.

### **131. Arto-lanak (ABD-014/013)**

Artoak gariak baino lan gehiago du: erein, jorratu, batu, puntako "ganille" kendu behiei emateko, urkuldu (garandu)...

### **132. Artoaren malutakaz lastamarragak egin (ABD-014/014)**

Artoaren malutak (azala) lastamarragak egiteko erabiltzen zituzten, koltxoiaren barrualdekoa.

### **133. Etxean urik ez (ABD-014/015)**

Gari-jotean hauts asko ateratzen zen eta asko zikintzen zen. Etxeetan ez zuten urik eta etxe aurreko putzuan edo patinean hartutako urarekin garbitzen ziren. Edateko uraren bila, iturrira joaten ziren. Benediktak dio iturriko ura metal-ura zela eta lapikorako ez zuela balio nahiz eta edateko bai balio izan. Txinbo xaboia erabiltzen zuten orduan ere, onena ei da.

### **134. Arkakusoak eta zorriak (ABD-014/016)**

Ardi (arkakuso) eta zorri asko egoten zen beraien ume eta gazte garaian. Gaur egun txakurrek badituzte ardiak, Marik dioen moduan "gitarra jotzen hasten direnean" igartzen zaie hori. Gaur egun etxean ez dute animaliarik. Benediktari kortara sartzen zaizkio katuak, saguak harrapatzeko onak dira.

### **135. Arropak garbitzeko lixiba egiten zuten (ABD-014/017)**

Arropak garbitzeko lixiba egiten zuten. Lixiba zer zen azaltzen dute. Benedikta Atxartera, harrobietatik gora, joaten zen astoz. Beldurrez joaten zen jende asko ibiltzen baitzen handik. Mariren etxe inguruan putzu eta iturri ederrak zeuden; Benediktaren etxe inguruan zegoen putzua sarritan sikatzen zen.

### **136. Surteko hautsa garbitzeko ona (ABD-014/018)**

Surteko hautsa esne-kantinak garbitzeko eta lixibari botatzeko erabiltzen zuten. Surteko hautsak kolore ona ematen zion guztiari. Erenoitza-orriak arropen botatzen zizkien garbitzerakoan, usain ona emateko.

### **137. "Isillue" (ABD-014/019)**

"Isillue" ezkaratzean (sukaldean) izaten zuten. Bi zatitan banatzeko erabiltzen zuten jesarleku luze bat zen eta ohol bat jartzen zien gorantz, ezkaratza bitan banatzeko horma bat legez.

### **138. Etxearen egitura; komunik ez (ABD-014/020)**

Baserriak zelan banatzen ziren azaltzen dute. Beheko solairuan ezkaratza (sukaldea), logela txiki bat eta korta zuten. Komunik ez zuten. Benediktaren etxea gerra garaian erre zen eta erre ostean, etxe berria altxatzerakoan jarri zuten komuna; komun hori zelakoa zen azaltzen du.

### **139. "Txirikillie" (ABD-014/025)**

Mutilekin olgetan ibiltzen ziren. "Txirikillie" zer den eta harekin nola jolasten zuten azaltzen dute. Sokasaltoan jolasten zutenean, kantuak abesten zituzten. Tabaka ere jolasten zuten. Pilotak egiten zituzten amari artilea harrapatuta.

### **140. Hiletak eta hilkutxak (ABD-014/029)**

Etxekoren bat hiltzen zenean, apaizari esaten zitzaion. Auzokoek hartzen zuten ardura. Gaubelan errosarioa errezatzen zen. Sepulturan kandelak pizten ziren domekero eta apaizari dirua ematen zitzaion. Meza ateratzeko dirua apaizari ematen zioten. Hilkutxak Abadiñoako arotzak egiten zituen. Umeena hilkutxa zuria eta txikia izaten zen. Bataiatu gabeko umeak aparteko lekuan lurperatzen zituzten. Umea izan eta zortzi-hamabost egunera joaten zen ama elizara.

### **141. Olako errotara (ABD-014/031)**

Untzillan lau etxe zeuden. Untzillabarrenekoa garai batean bizitza bikoia izan zela entzun zion amari Marik. Izurtzara astean behin izebari arrautzak eramatera joaten zen Benedi. Errotara Olara joaten ziren, artoa eta garia hartuta. Taloa, morokila, artoa eta ogia egiten zuten etxean. Errotariak beretzat zati bat hartzen zuen.

### **142. Durangoko bonbardaketa hil zen Mariren ahizpa (ABD-014/032)**

Gerra garaian Aramaiora eta Arratiaraino joaten ziren Benediktaren senideak errotara. Marik kontatzen du bere aitak anaia nola eraman zuen medikuarengana gauez bizkarrean Aramaioraino. Mariren ahizpa Durangoko bonbardaketan hil zen, esnea banatzera joanda. Bonbardaketako oroitzapenak.

### **143. Etxea erreta, batetik bestera ibili behar (ABD-014/033)**

Etxea milizianoz beteta egon zela entzun izan du Marik. Benediktaren etxea erre egin zuten. Benedikta senideekin Tellerian egon zen eta erreketek joan ziren behin. Mendiola libre zegoela esan zitetenean, aita etxea garbitzera joan zen baina hurrengo egunean, etxea erreta zegoen. Nondik nora ibili ziren kontatzen du. Etxe-errea batzen bere anaia ibili zela uste du Benediktak, baserria erre zitzaielako.

#### **144. Lutoa hildakoengatik (ABD-016/004)**

Beltzez jantzen ziren familiakoren bat hiltzen zenean, lutoa jartzen zuten. Hildakoa hurbilekoa izanez gero, urte biz jartzen zuten lutoa; bestela, urtebetez. Alargunek bizi guztian eramaten zuten lutoa, kendu barik.

#### **145. Erlijioak indarra galdu du (ABD-016/007)**

Erlijioak indar handia zeukan lehen. Oraingoek, ostera, ez dute sinesten. Lehen dena konfesatu behar izaten zuten, baina orain bekaturik ere ez dago.

#### **146. Familiako hildakoak euren begira (ABD-016/009)**

Oraingo pelikulak ez zaizkie gustatzen. Umeek bertatik ikasten dutela uste dute. Hildakoen arimei buruzko telesailak, ostera, egiazat dituzte, hildakoak euren begira daudela uste dute eta.

#### **147. Auzoko baserrien izenak (ABD-016/011)**

Ugazaba bizi zen etxearen izena Orue da eta ondokoa "Orue Accesoria", azken hau txikiagoa. Salbadore, ostera, auzoko ermitari esaten diote. Mari Paz Gerediaga baserritik Urizar ('Uxar') baserrira ezkondu zen.

#### **148. Gaztetan sokan eta dantzan ikasten (ABD-016/012)**

Etxean sokak behar zirela eta, zumearekin (mimenarekin) ikasi behar izan zuten sokan. Dantzan ikasteko, ostera, auzoko batek kazolen tapak hartu eta jo egiten zituen eurek haren erritmora dantzan egiteko.

#### **149. Bizikletan ibiltzen ikasten (ABD-016/013)**

Teresak eta lagunak "Apatanean" bizikleta bana alokatu zuten bizikletan ibiltzen ikasteko asmoz. Ia-ia errekarra jausi ziren.

#### **150. Bizikleta garraiobide (ABD-016/014)**

Sarri erabili izan dute bizikleta Abadiñora elizara joateko edo esneekin San Faustora joateko.

#### **151. Elizara joatea derrigorrezkoa (ABD-016/015)**

Zazpietako mezara makina bat bider joan dira oinez. Kontsezio egunean ere sakratua izaten zen mezara joatea eta baita bigarren domekan ere, Hijas de Mar&iacute;atara.

#### **152. "Sakalamantekas" eta "patapantxintxilla" (ABD-016/016)**

Behin, tximiniaren kontra zegoela loak hartu zuen Mari Paz eta behe-sura jausi zen. Gero, praktikantearengana egunero joan behar eta beldur handia izaten zuen bidean, 'Sakalamantekas' eta 'matapantxintxilla' zirela eta.

#### **153. Umetan "saladillak" eta barkilloak erosten zituzten (ABD-016/017)**

Zubiondon "saladillak" eta holako gauza gozoak egoten ziren umeentzat. San Blasetan ere barkilloak erosten zituzten. Asko aldatu dira gauzak euren sasotik hona.

#### **154. Eskola (ABD-016/018)**

Eskolara ere oinez joaten ziren. Lasterbideak erabiltzen zituzten sarritan. Hamar urtera arte Trañako eskolan ibili ziren eta gero mojangana joan ziren, esku-beharrak bertan ikasten ei ziren ondoen eta.

#### **155. Udan eskola utzi baserriko beharrak egiteko (ABD-016/019)**

Eskolara neguan baino ez ziren joaten, udan baserriko beharrak egin behar izaten ziren eta: itaurrean, ortuko beharrak, behiak zaindu, astoaren bila joan...

#### **156. Neskak maistrarekin puntu egiten (ABD-016/020)**

Trañako eskolan, maisua egoten zen mutilekin eta maistra neskekin. Doña Juliana eta Mari Cruz maistrak ezagutu dituzte. Puntua egiten ere erakusten zuten maistrek.

#### **157. Bilbora lehenengoz (ABD-016/021)**

Bilbon kontzentrazio moduko bat egin zuten behin eta eskola bakoitzak esku-beharra egin zuen bertara eramateko. Orduan egon zen lehenengoz Mari Paz Bilbon. Teresa, ostera, sarritan joan zen jeneroa saltzen Bilbora bost eta erdietako trenean.

#### **158. Maisu-maistrak (ABD-016/023)**

Eskolan maistra bat egon zen neska guztiakin, Mari Cruz; eta maisu bat mutilekin, Juan Bautista. Maistraren gizona kartzelan egon zen. Askotan, Teresari estufa ondora joateko esaten zion, azkordinak izaten zituen eta.

#### **159. Eskolan debekatuta zegoen euskaraz egitea (ABD-016/024)**

Eskolan erdaraz egin behar izaten zuten, nahiz eta maistra euskalduna izan. Askotan zigortuta egoten ziran, euskaraz berba egitearren.

#### **160. Guardia zibilak eskolarik eskola (ABD-016/025)**

Guardia zibilak eskolarik eskola ibiltzen ziren zaldi gainean. Euskarazko errotuluak kentzen zituzten eta umeek euskaraz egiten zuten begiratzen zuten. Orain, ostera, umeak euskarazko eskoletara doaz eta erdaraz egiten dute berba.

#### **161. Guardia Zibilak Durangon (ABD-016/027)**

Guardia Zibilak Durangoko kuarteletik etortzen ziren. Gerra aurrean, ostera, foralak egon ziren.

#### **162. Bonbardaketa (ABD-016/028)**

Gerra sasoiari, bombardaketak Durangon harrapatu zituen asko bertan hil ziren. Teresaren familiak babesleku moduko bat egin zuen etxe parean. Hala ere, inguruan ihesian zebiltzan beste asko bombardaketak harrapatu zituen.

### **163. Informazio falta gerraostean (ABD-016/029)**

Auzoko baten irratan entzuten zituzten kanpotik (Frantziatik, Ingalaterratik) ematen zituzten berriak. Hala ere, guardia zibilak inguruan ibiltzen ziren irriatiak zituzten edo ez jakin nahian.

### **164. Gerra sartu zenean etxetik irten behar (ABD-016/030)**

Matienako zubia dinamitaz bota nahi zuten, Francoren aldekoak pasa ez zitezen. Horregatik, etxetik irten behar izaten zuten gurdia beteta. Teresaren familia, esaterako, Sarrira joan zen.

### **165. Kanpoko jendea hartu etxean (ABD-016/031)**

Gerra sasoian, ganaduak ere atera behar izan zituzten etxetik. Etxean geratu zirenek kanpoko jendea hartzen zuten; Mari Pazten etxean, esaterako, Axpeko artzain bat izan zuten.

### **166. Miliziano alemaniarrek (ABD-016/032)**

Gerraostean milizianoak, alemaniarrek, sartu ziren etxeetara. Inguruko basoak ere hartu zituzten. Patxadazkoak izan ziren alemaniarrok, onak. Mororik ez zen egon inguruan. Gero, bertako soldaduak etorri ziren, hiru erregimentu.

### **167. Gerraosteko gosea I (ABD-016/033)**

Baserrikoek etxean hartzen zutena jaten zuten, baina gose galanta egon zen gerraostean. Soldaduek beharrak egiten zituzten baserrietan jatekoaren truke.

### **168. Gerraosteko gosea II (ABD-016/034)**

Baserritarrek behar egiten zuten jan ahal izateko, baina beste batzuk estraperloan ibiltzen ziren. Eskeko asko zegoen, ezagunak, eta herritarrek ahal zutena ematen zieten.

### **169. Aitak alabei zuka eta semeei hika (ABD-018/002)**

Elkarren artean hika ala zuka hitz egiten duten. Edurnek dio etxean 10 senide izan direla eta gehienek zuka hitz egin izan diotela. Berak, berriz, hika. Paulek dio gurasoengandik datorrela ohitura. Aitak neskei zuka egiten ei zien eta mutilei, berriz, hika. Berak ere berdin egiten omen du seme-alabekin.

### **170. Mutila jaio zenean, suziriak (ABD-018/006)**

Anastasiok zazpi arreba zeuzkan bera baino zaharragoak. Bera jaio zenean, mutila zelako, etxafuegoak bota zituztela entzuna du.

### **171. Eskolan 86 neska maistra bakarrarekin (ABD-018/012)**

Mutilen eskola udaletxean zegoen eta neskena, aldamenean. 86 neska zebiltzan eskolan, maistra bakarrarekin. Mutilak ere asko. Adin guztietakoak batera, lau-bost urterekin hasi eta 14 urtera artekoak.

### **172. Maisuak jo egiten zituen eskolan (ABD-018/013)**

Maisuak jo egiten zituen mutilak eskolan. Batzuetan erregelarekin, edo baita makilarekin ere. Udaletxeko beharrak egiten ibiltzen zen, eta bitartean mutikoak drogan. Haserretzen zenean, makilakada.

### **173. Maistra abertzalea kendu egin zuten gerra garaian (ABD-018/014)**

Edurnek dio gerra denborara arte maistra bakarra eduki zutela. Baina abertzalea zelako lanpostua kendu zioten. Handik atzera sarri aldatzen zieten irakaslea.

### **174. Mutilen maisua, gogorra (ABD-018/015)**

Mutilek maisu bakarra eduki zuten gerra aurretik eta gero. Idazkari lanak ere egiten omen zituen epaitegian. Erdalduna eta gaiztoa omen zen, eta euskaldunen kontrakoa. Anastasiok maisuak makilekin jotzen zituela dio.

### **175. Gerraostean "Nieves" izenarekin sinatu behar (ABD-018/016)**

Gerraostean Edurnek "Nieves" izenarekin sinatu behar izaten zuen, nahiz eta epaitegian Edurne zeukan lehenengo izentzat. Berak Edurne idazten zuen lehenengo, baina ezabatu eragiten zioten.

### **176. Paul izenarekin izan zituen gorabeherak (ABD-018/017)**

Paulek ezkontzerakoan izenarekin gertatu zitzaiona kontatzen du. Ezkondu ahal izateko, pulpitutik "deia" egin behar izaten zen, ea inork eragozpenik zuen galdetuz. Emaztegaia Durangokoa zuen, eta orduan Aboitiz zen bertako artziprestea. Izenaren gorabeheran harekin izandako eztabaidak.

### **177. Nortasun agirian euskal izenak jartzeko arazoak (ABD-018/018)**

Nortasun agirian euskal izenak jartzeko aukera ematen zuen legea atera zutenean, izena aldatzera joan zen Edurne, Garbiñe ahizparekin. Hasieran ez zioten onartu eta txostenarekin joan behar izan ziren berriro.

### **178. Etxean denek euskal izenak (ABD-018/019)**

Etxean anai-arreba guztiek zeuzkaten euskal izenak. Orduan arraroak ziren eta bizilagun batek esaten omen zuen nagusitan negar egingo zutela euren izenengatik. Gaur egun horiek dira ohiko izenak, eta nahi den izena jartzeko aukera dago, gainera.

### **179. Gerraostean eskolan erdaraz; bestela euskaraz dena (ABD-018/021)**

Euskaraz bizi ziren eta gaztelaniaz ez zekiten askorik. Gerraostean eskolan gaztelaniaz egin behar izaten zuten, baina lagunekin dena euskaraz.

### **180. Umetako jolasak; "txapuketan" (ABD-018/022)**

Umetako jolasak. Neskak kromoekin edo sokarekin jolasten ziren. Mutilak "txapuekin" (pospolo kaxekin) jolasten zuten. Nola izaten zen jolasa. Garizuman, txirikilan.

### **181. Garizuman txakolindegietara (ABD-018/023)**

Garizuman ez zen egoten erromeriarik, eta gazteak igande arratsaldean txakolina egiten zen baserrietara joaten ziren. Anastasioren etxean txakolina egiten zuten.

### **182. Zinera joera gutxi; erromeriara gustura (ABD-018/024)**

Gaztetan zinera joateko ohitura gutxi zuten. Erromeriara joaten ziren gustura, eta, ahal bazen, neska-laguntzea egin.

### **183. Alkateak dantza lotua debekatu zuen gerraostean (ABD-018/025)**

Abadiñon gerraostean alkate batek debekatu egin zuen dantza lotua, eta inguruko erromerietara joaten ziren. Gerora, baimendu zuten erromeria.

### **184. Berrizko erromeriara bizikletan (ABD-018/026)**

Neska-laguntzea noraino egiten zuten. Berrizera erromeriara bizikletaz joaten zirela dio Paulek. Hango mutil bati pezeta bat ordaindu bizikletak zaintzeko, dantza egin, neska-laguntzea egin, berriz bizikletak hartu eta etxera.

### **185. Lanera joateko bizikleta edo motor-bizikleta (ABD-018/027)**

Gehienek izaten zuten bizikleta garai hartan, Durangora lanera joateko behar izaten zuten eta. Eguerdian etxera joaten zirenez bazkaltzera, lau buelta egin behar egunero. Anastasiok dio Eibarren erositako motor-bizikleta izan zuela. 7500 pezeta ordaindu omen zituen.

### **186. Edurne bizikletan Durangora, enkargutara (ABD-018/031)**

Edurnek etxe atarian ikasi omen zuen bizikletan. Ez du prakarik janzten eta gonarekin ibili izan da beti. Durangora enkarguak egitera joateko erabiltzen zuen bizikleta. Bestela oinez edo trenez joan behar.

### **187. Aitak hasarrerik ez, baina begiratu zorrotza (ABD-018/032)**

Etxean denda, taberna eta ile-apaindegia zituzten. Paulen aita, gero anaia zaharragoa eta, azkenik, bera ibili ziren "barbero" lanetan. Edurnek dendan eta tabernan lan egiten zuen. Aitari errespetu handia zioten. Begiratu zorrotza ei zuen aitak eta mozkorrei ere errespetua sartzen omen zien.

### **188. Abadiñoko taberna eta dendak (ABD-018/034)**

Bost edo sei taberna zeuden Abadiñoko erdigunean. Orduko taberneak dendako zerbait ere eduki behar izaten zuten. Beraiek taberna eta denda aparte zeuzkaten. Inguruan zeuden dendak. Gerra garaira arte estankoa izan zuten euren, baina Erregimenaren aldeko sinadura ez botatzearren, kendu egin zuten aitak.

### **189. Euren etxera itzultzeko baimena behar (ABD-018/035)**

Gerra garaian Bermeora joan ziren osaba-izeben etxera. "Kordeleria" zuten eta barkuentzat aparejuak egiten zituzten. Hiru hilabete egin zituzten han. Handik itzuli zirenean, alkateari baimena eskatu behar izan zioten euren etxean sartzeko. Baimena eman zien, baina hiru hilabetez prezintatuta izan zituzten taberna, denda eta pentsu-biltegia.

### **190. Udaletxeko kide guztiak kartzelara (ABD-018/038)**

Udaletxeko kide guztiak preso hartu zituzten gerra garaian, hasi alkatetik eta udaltzainera arte. Euren anaia ere Bilboko kartzelara eraman zuten 16 urterekin, udaletxean lanen bat egiten ari zelako. Hernaniko "Dragones" batailoia zetorrela eta, herriko karlistei Bilbora joateko esan omen zieten udaletxeok. Gero, nazionalak etorri zirenean, udaletxeko guztiak preso hartu eta lehen Bilbora alde egindakoek hartu omen zuten udaletxearen ardura.

### **191. Anaia 16 urterekin preso (ABD-018/039)**

1937an 16 urteko anaia kartzelan sartu zuten, udaletxean idazkariaren laguntzaile lanetan ari zelako. 17 urteak han bete zituen. Etxera etorri eta urtebetera, 18 urterekin, soldadu joan behar izan zen, eta 24 urterekin itzuli zen etxera.

### **192. Batzokia, euren etxe gainean (ABD-018/040)**

Euren etxe gainean Batzokia zegoen. Eraikina aitarena zen. Batzokian egiten ziren gauzak. Emakumeek esku-lanak egiten zituzten. Gerra garaian prezintatu egin zuten eta "Círculo carlista" moduan erabiltzen zuten.

### **193. Emakume abertzaleei ilea mozten zieten (ABD-018/041)**

Gerra garaian abertzaleen ondasunak errequisatu egiten zituzten eta "Círculo carlista" Angulo abertzalearen txaletean jarri zuten. Anastasioren emaztearen izebari ilea zerora moztu omen zioten bertan, emakume abertzale baten etxean lanean jardun zuelako. Edurnek kontatzen du bere bi ahizpa ere ilea mozteko eraman zituztela, baina azkenean libratu egin ziren.

### **194. Anaiaren hileta Durangoko bonbardaketaren egunean (ABD-018/045)**

Durangoko bonbardaketaren egunean, martxoaren 31n, 18 urteko anaiaren hileta izan zuten. Orduan goizeko 10etan izaten ziren hiletak. Zain zeudela, orduantxe hasi ziren Durango bonbardatzen. Hegazkinetatik paperak botatzen zituztela iruditzen zitzairen. Lurra jo zutenean zarata entzun zuten. Bonbak zer ziren ere ez zekiten. Arreba zaharrena arratsaldean Durangora bueltan zihoala metrailatu egin zuten eta bizi guztirako herren geratu zen.

### **195. Goizeko seietako meza aurretik ilea moztera (ABD-018/047)**

Bertako jendea ibiltzen zen tabernan. Ardoa edaten zen normalean. Domeketan goizeko seietan izaten zen lehenengo meza. Aitari eta anaiari mezara orduko etortzen zitzairen baserriko jendea, ilea eta bizarra moztera. Taberna eta denda era sei eta erdietarako zabalik egoten ziren. Baserrietako emakumeek meza entzun eta, bide batez, erosketak egiten zituzten.

### **196. Etxean zein kanpoan lanean (ABD-020/004)**

Etxetik kanpo zortzi edo hamar ordu lan egin ostean, etxean ere lan egin behar izaten zuten. Etxetik kanpora basoan edo edozein lekutan egiten zuten lan. Aurelio 14 urtegar Matiena auzoko eta lurreta arteko errepidea egiten aritu zen, bi urtez ibili zen bertan. Gero paper-lantegian eta basolanetan ibili zen. Azken 29 urteetan Atxarteko harrobian aritu zen. Hala ere, etxean ere beti zuten lana, kortan zein soloan.

### **197. Harrobian zein basolanetan eskuz (ABD-020/005)**

Atxarteko harrobian ibili zen lanean 29 urtez. Han zein lan egiten zuen. Lehen harri-zulatzaille lanak eskuz egiten ziren. Basolanak ere eskuz egiten ziren: gaur egungo motozerraren ordez aizkora erabiltzen zuten.

### **198. Autorik ezean, edonora bizikletaz edo oinez (ABD-020/006)**

Aureliok ez du autorik erabili, traktorea bai. 80 urtera arte bizikletaz ibili da, edonora bizikletaz joaten zen. Bizikleta izan aurretik, bizikleta erosteko dirua aurreratu arte, oinez joaten zen joan beharreko lekuetara.

### **199. Irabazitako dirua etxean entregatu behar (ABD-020/007)**

Irabazitako jorna etxean entregatu behar izaten zuen. Etxera ezkondu zen Aurelio eta orduan ere erdia gurasoei eman behar izaten zien.

### **200. Baserriak errentan (ABD-020/009)**

Baserrietako errentak urtean behin ordaintzen zen. Urte bukaeran ordaintzen zen: Kontzesio Egunez edo Gabonetan. Basolanetan aritzeko eskubidea zuten, etxerako behar zutena ateratzeko (ira, egurra...), baina pinudia ugazabarena zen. Baserri asko mantentzeko era zen errentariak izatea, bestela jausita eta alperrik galduta egongo ziren horietako asko. Aurelio bere baserriko bosgarren belaunaldia da eta ordura arte ez dute tximiniarik izan, berak jarri zuen.

### **201. Tximiniarik gabeko baserria (ABD-020/010)**

Aurelio bere baserrian bizi den bosgarren belaunaldikoa da eta ordura arte ez dute tximiniarik izan, berak jarri zuen. Ordura arteko egitura zelako zen eta zelan bizi ziren azaltzen du. Aurrekoak errentan bizi ziren eta ugazabak ez zuten horrelako konponketarik egin.

### **202. Errentan bizi arren, norberak konpondu behar etxea (ABD-020/011)**

Aurelio bere baserrian bizi den bosgarren belaunaldikoa da. Aurrekoak errentan bizi ziren eta ugazabak ez zuten inolako konponketarik egiten etxean. Zerbait behar izanez gero, beraiek egin behar izaten zuten.

### **203. Lehengo baserriak; astoa logelan agertu zenekoa (ABD-020/012)**

Baserrien egiturak asko aldatu dira. Juanek dio bere etxean gaur egun ezkaratza (sukaldea) dena, lehen korta zela. Aureliok gai horrekin lotutako anekdota bat kontatzen du: behin astoa etxe barruko kortan zegoela, atea zabalik aurkitu eta beheko solairuko logelako ohean zeudela ohean agertu zitzaien, apatxak ohean zituela.

### **204. Baserrietako komunak eta garbiketak (ABD-020/014)**

Aureliok bere etxeko komuna zelako zen kontatzen du, beti ezagutu du komuna etxean. Ez zuten komuneko paperik, baina topatzen ei zuten zegaz garbitu. Juanen etxean, ostera, komuna korta zen.

## **205. Bainugela eta garbiketa pertsonala (ABD-020/015)**

Bainugela osoa eta labadora 1975tik du Aureliok. Juanek dio ura izanez gero bainugela egitea ez zela hain gaitza, arazoa ura zela. Oraintsura arte izan dute falta hori Juanen etxean. Arropak garbitzera ere errekarara joaten ziren urik ez zutelako. Bainatu ere errekan eta balde batean egiten ziren. Elkarrizketa garaian oraindik, Juanen etxean ez zuten dutxarik bainugelari, baina berak atontzen duen dutxa antzekoa.

## **206. Eskolan euskara galarazita (ABD-020/018)**

Maistra donostiarra zuten Mendiolako eskolan, baina erdalduna zen. Galarazita zuten euskaraz egitea. Gerraostean joan ziren biak eskolara, zazpi-zortzi urte izan arte ez baitziren eskolara joaten. Eskolatik irteterakoan beti izaten zuten baserriko lana zain.

## **207. Pentsamendua ere bekatu (ABD-020/019)**

Dotrina eskolan bertan jasotzen zuten. Abadea astean behin joaten zen Abadiñotik Mendiolako eskolara. Abadea Jaungoikoaren hurrengokoa zela dio Aureliok. Pentsamendua bekatua zen, dena zen bekatu.

## **208. Abadiñon dantza lotua galarazita (ABD-020/021)**

Neska laguntzen nahi-nora joaten ziren. Aureliok Mendiolako neska batekin, Luziarekin, egin zuen bere lehen neska-laguntzea. Erromerietatik etxeranzko bidean laguntzen ziren neskei mutilek. Gerraostean ez ziren uzten helduta ("agarrauen") dantzari egite. Behin bertako soinulari batzuekin erromeria egin zuten, baina bat-batean herriko zinegotzi bat azaldu eta bertan beheran utzi behar izan zuten. Atxondoko Apatamonasterio auzoan eta Elorrion gramola egoten zen eta domeketan hara joaten ziren. Alkatea aldatu zen arte, Abadiñon ez zuten erromeriarik izan. Alkate berriagaz Durangotik ere jende asko etortzen omena zen Abadiñora.

## **209. Erromerietan korroz korro ordaindu behar (ABD-020/022)**

Mutilek erromerian dantzari egiteagatik ordaindu egin behar izaten zuten, korro bakoitzean kobratzen ziren. San Antoniotan goizez Urkiolara eta handik Durangora joaten ziren. Urkiolan zazpi bat korro egoten ziren eta Durangoko Ezkurdiko parkean beste bizpahiru. Aureliok dio merienda baino garestiagoa zela dantza egitea.

## **210. Nesken kalabazak eta neska laguntzeak (ABD-020/023)**

Erromerietan neskatan egiten ahalegintzen ziren. Kalabazak jaso arren, beste neska asko egoten ziren eta ez zuten dantza egiteko arazorik izaten. Aureliok gogoan du behin neska bati lagundu ostean beste mutil bat haserretu zitzaionekoa.

## **211. Karobian karea zelan egin (ABD-020/027)**

Karobitik hartutako karia gauza askotarako erabiltzen zen. Karea zelan lortzen zen azaltzen dute pasarte honetan.

## **212. Ikatza txondorrean zelan egin (ABD-020/028)**

Ikatza eta karea egitea antzerakoa dela dio Aureliok. Ikatza egiteko egurrarekin txondorra egin behar da. Prozesua azaltzen dute pausuz pausu. Aurelioren etxean askotan egiten zuren. Batez ere pagoa eta haritza erabiltzen zuten, pinua izan ezik edozein egurrek balio ei du. Orduan ez zegoen pinudirik inguruetan. Txondorraren ondoan txabola egin eta bertan egin behar izaten zuen lo ikazkinak. Adi egotea garrantzitsua da, ondo zainduta.

## **213. Ikatza noiz eta zelan atera (ABD-020/029)**

Txondorrean ikatza egin eta gero zelan dakigu ateratzeko prest dagoela? Aurelioren etxean askotan egin izan dute ikatza eta horri buruzko azalpenak eman zizkigun. Zakuetan sartzen zuten txondorretik ateratako ikatza.

## **214. Ikazkina txabolan lotan (ABD-020/030)**

Ikatza txondorrean egiten zen. Txondorraren ondoan eraikitako txabola batean egin behar izaten zuen lo ikazkinak gau eta egun txondorra zaindu ahal izateko. Juanek bere osaba ikazkinari gertatutako anekdota kontatzen du. Aureliok dio bera txabolatik kanpo, arbolapean, lo egindakoa ere badela.

## **215. Bideak aitzurrarekin zabaldu (ABD-020/031)**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako muga adierazten duen munarrian dagoen monumentuko materiala Atxartetik eraman zituzten. Lehenengo kamioia pasatzeko bidea eurek zabaldu zuten aitzurrarekin.

## **216. Amaiterminetako Otxandio gaz zuten hartu-emonaren (ABD-023/002)**

10 neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Ama Arrazolakoa zuen eta umetan han egoten zen sasoi batez, hurrengo umea jaio zenean. Amaitermin auzoa Abadiñon egon arren, Otxandio gaz izan dute beti hartu-eman gehiago. Elizaz Otxandiori dagokio Amaitermin auzoa. Umetan ez ei zekien Abadiñon non zegoen. Amaitermin toponimoaren esangurari buruz ere dihardu.

## **217. Amaiterminen eskola (ABD-023/003)**

Amaiterminen eskola txikian hainbat auzunetako neska-mutikoak batzen ziren, 50 ume inguru Amparo Zabala maistra gipuzkoarragaz.

## **218. 12 urteko seminariora joateko erabakia (ABD-023/006)**

Txikitan nahikoa okerra omen zen Bittor. 12 urte bete zituenean, seminariora joateko asmoa azaldu zien gurasoei, baina beste urtebetez egon zen etxean. Arteko seminariora joan zen 13 urteko. Ordura arte ez zuen aparte hartu-emanik abadeekin eta ez zen elizara asko joatekoa. Seminarista zela oporretan egunero joaten zen Otxandio mezara.

## **219. Gasteizko seminarioan egoera okertu (ABD-023/007)**

Arteko seminariora joan zen 13 urteko. Gero Gasteizera joan zen eta han miseria asko ezagutu ei zuen, batez ere gerraostean. Denboraldi luzez antxoak jan zituztela du gogoan. Gerra garaian gauzak asko okertu ziren.

## **220. Gerran "kamillero" (ABD-023/008)**

Gerra hasi zenean, etxetik entzun zitzaizkien kanpoko tiro-hotsa eta gainerakoak. Bere edadeko gehienak eta zaharrenak hartu eta Gasteizera eraman zituzten. Abadiñoko udaletxean izandako errakuntza bat tarteko, urtebete beranduagoko kintan joan zen soldadu. Abadegaia zenez, osasungintzan ibili zen, armekin barik "kamillero" bezala.

## **221. Emakume batez abusatu zuen soldadua fusilatu (ABD-023/009)**

Gerra Zibilean, abadegaia zenez, armekin barik "kamillero" bezala eroan zuten frontera. Burgosen zuten kuartela eta bertara eraman zituzten. Baina handik hiru egunetara frontera eraman zuten. Dimatik Otxandiora zegoen abiazio-zelaira etorri ziren. Francok Afrikatik ekarritako mairuak ere bazeuden bertan. Horietako batek emakume batez abusatu omen zuen eta bere kideek fusilatu zuten.

## **222. Burdinazko gerrikoa apurtu zutenekoa (ABD-023/010)**

Gerra Zibilean, abadegaia zenez, armekin barik "kamillero" bezala eroan zuten frontera. Dima eta Otxandio artean egon eta gero Orduña aldera joan zen. Alemaniarren abioiak ziren onenak, baina kanoiak italiarrenak ziren onenak erasotzeko. Handik Bizkaia hartzeko frontera pasatu ziren. Goikoetxeak, burdinazko gerrikoa egin zutenetako batek, pasatutako planoak erabili zuten Francoren aldekoek. Bittor ere haiekin ibili zen, betiere derrigortuta, ez zuen eta beste aukerarik izan. Bera Bilboko "libertadore" bat dela aipatzen du ironiaz. Bertokoek zuten abioi bakarra "El abuelo" izenekoa zen, indar gutxikoa. Burdinazko gerrikoa barik, lastozko gerrikoa zela dio.

## **223. Frontean gauza gogor asko ikusitakoa (ABD-023/011)**

Gerra Zibilean "kamillero" bezala ibili zen. Francoren aldekoek eroan zuten derrigortuta. Bilbo hartu zutenean, Santo Domingotik gora hildako asko ikus zitezkeen. Santander eta Oviedotik Galiziaraino joan ziren. Riañon denbora askoan egon zen. Gauza gogor asko bizi eta ezagutu zituen.

## **224. Teruel, Lleida eta Cuencako fronteetan (ABD-023/013)**

Gerra Zibilean "kamillero" bezala ibili zen. Francoren aldekoek eroan zuten derrigortuta. Bizkaitik Galiziaraino joan ostean, Nafarroan egon ziren hilabetez Teruel, Lleida eta Cuencara joan aurretik. Horietan bizi izandakoak kontatzen ditu, Terueleko kanposantuan Abadiñoko seme bat hil zenekoa, adibidez. Cuencan jakin zuten gerra bukatu zela eta zuzenean etorri ziren etxera.

## **225. Otxandioko bonbardaketatik ihesi (ABD-023/014)**

Gerra hasi zenean Bittor Otxandion zegoen, ez seminarioan. Otxandioko bonbardaketako lekukoa da, Andikonako plazan bonbak bota zituztenekoa. Oletako basoetatik lortu zuen etxera onik bueltatzea.

## **226. Mola Franco baino gogorragoa zen (ABD-023/015)**

1936an, gerra hasieran, bonbardatu zuten Otxandio. Neguan barealdia izan eta gero 1937an berriro hasi ziren gogor erasotzen. Bittorren anaia ere orduan hil zuten, traizio bat tarteko. Errekete nafarrak oso gogorrak ziren. Mola Franco baino gogorragoa zen, hasieran Franco ez baitzen izan gerraren buru izateko hautagaia. Mola abioi istripu batean hil zen.

### **227. Salaketen ondorioz hildakoak eta kartzelaratuak (ABD-023/016)**

Gerra garaian, ezinikusien ondorioz, kartzelaratu eta hil zituzten hainbat lagun. Auzokoen edo herrikoen arteko salaketa asko egon ziren herri askotan.

### **228. Gerraostean seminariora bueltan (ABD-023/017)**

Gerra Zibilean "kamillero" bezala ibili zen. Francoren aldekoek eroan zuten derrigortuta. Lleidan bizi izan zuen arrisku gehien. Cuencan zeudela bukatu zen gerra, Madril hartu eta gero. Gerraostean seminariora bueltatu zen, azterketa baten bitartez galdutako ikasturtea berreskuratuz. Hainbat postu izan zituen seminarioan: irakasle, prefektu eta Gogarte Etxeko (gaztelaniazko "Casa de Ejercicios") zuzendari. Han egon zen 1948an misioetara joan zen arte.

### **229. Lauzirika gotzainak egindako ekarpena (ABD-023/019)**

Gasteizko seminarioko irakasle zela On Joxe Miel Barandiaran izan zuen lankide. Lauzirika gotzainak asko lagundu zion seminarioari.

### **230. Gasteizko Gogarte Etxean (ABD-023/020)**

Gasteizko seminarioko irakaslea izan zen Bittor, ordezkapenak egiten ibili zen. Bertako abade batek Gasteiz inguruko elizetan erretiroak emateko ardura zuen eta hura ordezkatzeko bidali zuten Gogarte Etxera (gaztelaniazko "Casa de Ejercicios"). Gero Donostiako Ulia mendiko gogarte-etxean ere egon zen.

### **231. 1948an Ekuadorrera misiolari (ABD-023/024)**

Gasteizko seminarioko abadegai gehienak arabarrak ziren, baina gipuzkoarrak eta bizkaitarrak ere bazeuden. 1948an misioetara joateko aukera izan zuen Bittorrek, eta hainbat aukera aztertu ostean Ekuadorrera joan zen beste abade batzukaz batera.

### **232. Ekuadortarrek erlijioa zelan bizi zuten (ABD-023/025)**

1948an misioetara joan zen Ekuadorrera. Joan aurretik pentsatzen zuten bertako jendea ez zela fidela, beraien moduan pentsatzen ez zutenak ez zirela benetako eliztarrak. Adibidez bataioetan sekula ez zuten amarik ikusten umearen ondoan, besteak beste. Hainbat adibide aipatzen ditu. Erlijioaren kontzepturik sakonenak ondo barneratuak zituzten; heriotza baten aurrean elkarri barkamena eskatzen zien, esate baterako.

### **233. Ekuadortarrak eta ezkontzak (ABD-023/026)**

1948an misioetara joan zen Ekuadorrera. Gutxi ziren ezkonduak eta andre bakarragaz bizi zirenak.

### **234. "Beraien erlijioa beraien modura" zuten Ekuadorren (ABD-023/027)**

1948an misioetara joan zen Ekuadorrera. Modu desberdinean bizi zuten han erlijioa. Beraien erlijioa beraien modura zutela dio Bittorrek. Elizbarrutiko misioak ere guztiz aldatu dira, izena baino ez dute mantendu bere iritziz.

### **235. Aita Santuak eta kontzilioak (ABD-023/029)**

Bi Aita Santurekin egon da Bittor, Pablo VI.arekin eta Juan Pablo II.arekin. Pio XII.a ere ikusi zuen, baina sekula ez zen beragaz egon. Lehen kontzilioa Juan XXIII.ak iragarri zuen eta kontzilioa denboran Pablo VI.ak lau moderatzaile izendatu zituen. Beretzat handiena Pablo VI.a izan zen, baina gero beldurra sartu omen zitzaion.

### **236. Fedea vs Eliza (ABD-023/031)**

Fedea sinesmena izatea da, ez du Elizarekin zerikusirik. Jende asko agnostikoa da: fedea du, baina ez daki Jaungoikoa zelakoa den. Jesukristorena ere misterio handia da.

### **237. Gerediaga auzoa lehen eta orain (ABD-025/003)**

Aita auzoan bertan jaioa zen eta ama Trañagoitikoa. Auzoa lehen eta orain nolakoa zen kontatzen du. Baserriak eta bizilagunak izendatzen ditu.

### **238. Gerediaga auzoko aldaketak (ABD-025/004)**

Auzoan izan diren aldaketak aipatzen ditu. Auzoko eraikuntzak eta baserriak izendatzen jarraitzen du.

### **239. San Prudentzioko ermita berria (ABD-025/008)**

San Prudentzioko ermita berriaren egitura beraiek egin zuten. Gaztetako lanak kontatzen ditu.

### **240. Kofratzailearen lanak (ABD-025/010)**

Kofratzailearen lanak azaltzen ditu. Soldataren zati bat gurasoei ematen zien.

### **241. Artoa, garia eta txorien orde, lantegiak (ABD-025/012)**

Auzoko lehenengo lantegiak aipatzen ditu. Lehen artoa eta garia egoten zen eta dena txoriz beteta.

### **242. Baserrian lan asko beti (ABD-025/013)**

Baserritik bizitzea nekeza dela dio. Ama Durangora joaten zen astoa hartuta plazara larunbatero. Baserrian lan asko egin behar izaten zen, kanpoan lan egin arren.

### **243. Baserritarraren lana ez da preziatzen (ABD-025/014)**

Eskulana ez da preziatzen. Kaletarrak ez dira ohartzen zer lan ematen duen baserriko lanak. Erretiroarekin ondo bizitzen omen da baina sasoi onarekin hobeto.

### **244. Gari-jotea zelakoa zen (ABD-025/015)**

Gari-jotea nolakoa izaten zen kontatzen du. Garia udaletxean eman egin behar izaten zen.

#### **245. Etxeko gariarekin etxeko ogia (ABD-025/016)**

Artoa Anportako errotara eramaten zuten eta garia Durangoko errota batera. Errotatik ekarritako gariari zaia kendu eta labeko sua eginda ogia egiten zen. Labea zelakoa zen kontaktzen du.

#### **246. Abadeek gazteak kontrolpean (ABD-025/020)**

Abadeek gazteak kontrolpean izaten zituzten, bereziki neskak. Beretzat erlijiorik onena, norberari gustatzen ez zaiona besteei ez egitea da.

#### **247. Probetan animaliei tratu txarra (ABD-025/021)**

Parranda egiten zuten eta biharamunean lanera joaten ziren. Ez zaizkio probak gustatzen, animaliei tratu txarra ematen dietelako. Etxean abereak izan dituenak, pena hartzen omen du.

#### **248. Uztarriak zela egiten ziren (ABD-025/022)**

Behiekin araketan jarduten zuten. Uztarriak nola eta nork egiten zituen kontaktzen du. Zitza sasoi txarrean botatako egurrari agertzen zitzaion.

#### **249. Ilargiaren eragin handia (ABD-025/023)**

Ortuan ereiteko zein landatzeko ilargiak eragin handia dauka. Txerria hiltzeko ere ilbeheran egiten zen. Edozein adarretan proba egin daitekeela dio: ilbeheran ez dio izerdirik irtetzen, ilberrian bai.

#### **250. Auzolana, elkarri laguntzeko (ABD-025/024)**

Auzolana elkarri laguntzeko izaten zen, ezer espero gabe. Errekak ere auzolanean garbitzen ziren lehen, baina gero zuhaitzak mozteko baimena eskatu behar eta utzi egin zitzaion.

#### **251. Gabonetan olio-aza eta bakailaoa (ABD-025/025)**

Gabonetan ilusioa egoten zen gauza bereziak edan eta jateko. Orain asetuta egoten da jenderik gehiena. Olio-aza jaten zen lehenengo eta ondoren bakailaoa beharbada.

#### **252. Ogi bedeinkatua etxekoentzat eta abereentzat (ABD-025/028)**

San Anton egunez Urkiolara joaten ziren eta ogiak bedeinkatzen ziren. Ogiak etxera ekarri eta pusketak banatzen zituzten, baita abereei ere, osasun hobea izateko.

#### **253. Abadeei buruzko esaera (ABD-025/030)**

San Blasetan abadeek diru-bilketa egiten zuten. Ez zuten nahi izaten zenbat biltzen zen esaterik. Aitaren eginez esaera bat esaten du, abadeei buruzkoa.

#### **254. Mendiolako eskolako kontuak (ABD-027/002)**

Hiru urterekin hasi zen eskolan. Orduantxe ipini ei zuen Aldundiak eskola Mendiolan. Hiru urtetik seira bitartean maistra euskalduna eduki zuen, baina gainontzekoak erdaldunak, Bilbokoak. Eurak ez zekiten gaztelaniaz, baina maistrak zigortu egiten zituen euskaraz hitz eginez gero. Hamabi urtera arte ibili zen. Zer ikasten zuten.

### **255. Baserrian lan egin behar (ABD-027/003)**

Hamabi urterekin utzi zuen eskola eta handik aurrera lan egin beharra izan zuen. Etxeko giroa; aitita eta amama. Baserrian egin behar izaten zituen lanak: behiak batu, azpiak egin, basora joan...

### **256. Gerraostean Abadinon musika debekatuta; Axpera erromeriara (ABD-027/004)**

Berak 15 urte zituela irten zen gerra. Gerraostean, Abadinoko alkateak musika guztia debekatu zuen, danbolina izan ezik, eta Axpera joaten ziren erromeriara. Han eskusoinua jotzen zuten. Abadiñora ez zen inor joaten. Durangora joaten zen jendea, baina nagusiagoentzat ei zen. Alkatea aldatu zenean, berriz baimendu ziren erromeriak Abadiñon.

### **257. Goizeko ordu bietan jaiki eta Otxandiora "bendejiaz" (ABD-027/005)**

Goizeko ordu bietan jaiki eta astoarekin Otxandiora joaten ziren "bendejiaz" (baratzeko elikagaiekin), saltzera. Domeketan egiten ei zen "plazia" Otxandion. Inguruetatik nortzuk joaten ziren. Goizeko 6rak alderako iritsi eta meza entzuten zuten lehenengo. Gero, elikagaiak saldutakoan, hamarretakoa egin eta atzera buelta. Nondik zehar itzultzen zen etxera. Askotan gogo txarrez itzultzen ziren, erromeriara joateko ere gogorik gabe, batez ere uda partean.

### **258. Lamien inguruko ipuina (ABD-027/007)**

Amamak kontatzen zien ipuina. Behin amamaren osaba bat basoan zehar etxera datorrela, ikazkinek utzitako zulo batean neska pila bat ikusi ei zuen dantzan eta eurekin dantza egin omen zuen. Ahateen antzeko hankak ei zituzten.

### **259. Mendiolan gertatutako ipuina (ABD-027/008)**

Mendiolan gertatutako ipuina.

### **260. Norekin egin izan duen hika edo zuka (ABD-027/009)**

Senarrarekin beti zuka egin izan du. Etxean anai-arrebekin eta lagunekin beti hika. Hika egiteak konfiantza gehiago ematen duela dio. "Hik eta hok" esaten dio berak.

### **261. Gerra garaiko bizipenak; Ibarrurira ihesi (ABD-027/010)**

Gerra garaiko bizipenak. 15 urte zituen. Durangoko bonbardaketa gertatu zenean beldurtu ziren. Abadiñoko alkateak esan zien Mendiolatik alde egin behar zutela. Abere asko zituzten etxean, eta nora joan? Ibarrurira joan ziren, izebarenera. Ezer gabe itzuli ziren.

### **262. Gerraostean irinik ez eta gosea (ABD-027/011)**

Gerraosteko kontuak. Errotak itxita eta irinik ez. Mekoletara (Otxandio ingurura) edo Aramaiora joaten ziren irinetara. Baserrian ez zuten pasa hainbesteko goserik, baina kalean bai. Ezkondu eta gero ere errazionamendua eta gosea.

### **263. Aurrekoek gehiago lan egiten zuten auzolanean (ABD-027/012)**

Euren sasoirako goldea zegoen eta ez zen laiaketarik egiten auzolanean. Aurrekoek hala egiten zuten. Gari-jotzea bai egin izan du auzolanean.

### **264. Mendiolako San Kristobal jaiak (ABD-027/013)**

Mendiolako San Kristobal jaiak. Lehenengo egunean gazteek egiten zuten aurrekua. Egun bakoitzean ze ekitaldi egoten ziren. Dantzazalea izan da.

### **265. Aitak trikiti piezak jotzen zituen gitarrarekin (ABD-027/014)**

Dantzazalea izan da, aita bezalaxe. Aitak gitarra ere jotzen ei zuen, baina dantza solteko kantak bakarrik. Bere kontura ikasi ei zuen gitarra jotzen.

### **266. Nesken auresku egunean, mutilek kale (ABD-027/015)**

Lehenengoak izaten ziren dantza egiten. Nesken aureskua eta mutilena, egun desberdinetan. Behin, nesken auresku egunean mutilek ez zieten lagundu. Orduko kontuak. Kanpotik dantzariren bat etortzen zenean, baimena eskatu behar izaten zuen aureskua egiteko.

### **267. Berriz ezkontzen ziren alargunei, burla (ABD-027/017)**

Alargunen bat berriro ezkontzera zihoanean, burla antzekoa egiten zitzaion: etxetik elizaraino atzetik jarraitu arranak joz, edo beste zerbait eginez. Bere amaren ahizpa alarguna beste alargun batekin ezkondu zeneko kontuak.

### **268. Aita eta aitagarrebaren asmo bihurriak (ABD-027/018)**

Bere aita eta senarraren aita artzainak ziren, eta elkarrekin ibiltzen ziren sarri. Behin Otxandiora "bendejiaz" bakar-bakarrik joaten zen emakume bat beldurtzea bururatu zitzaien. Orduko pasadizoa. Sekulakoak egiten zituzten bi gizonek.

### **269. Amama, emakume gogorra (ABD-027/020)**

Amamaren izaera; emakume gogorra. Haien garaian karlistak eta "baltzak" (monarkikoak) zeuden. Monarkikoez irabazi zuten, haien alde egotea komeni zela esaten zion aititari, zerbait eskatu behar baldin bazitzairen ere.

### **270. Amamak pisuarekin azokan egindako tranpa (ABD-027/021)**

Amama larunbatetan Durangora joaten zen etxeko elikagaiak saltzera. Bazeuden gutxiago pisatzen zuten pisuak, eta bandoa atera zuten herrian, pisu haiek erretiratzeko eskatuz. Amamak berdin-berdin pisu harekin jarraitu zuen. Harrapatu zutenean, izen faltsua eman zuen eta ezin izan zuten identifikatu.

### **271. Eguen zuri eguna mutilek bakarrik ospatzen zuten (ABD-027/023)**

Eguen zuri eguna. Neskak eskolara joaten ziren normal-normal. Mutilak goizeko seiak aldean jaiki eta etxerik etxe ibiltzen ziren.

### **272. Senargaia Afrikara soldadu (ABD-027/024)**

Senargaia (gero senarra izan zuena) Afrikara joan zen soldadu eta urtebete baino gehiago egin zuen han. Gero Lleidara ekarri zituzten eta han, Pirinioetan, beste urtebete inguru egin zuten.

### **273. Baserritarrak kare bila gurdiarekin (ABD-027/026)**

Senarrak karobian lan egiten zuen urtean bi edo hiru hilabetez. Baserritarrak gurdiekin etortzen ziren kare bila. Urtean zehar, harria atera, bideak egin... halako lanak egiten zituzten.

### **274. Domeketan erromeriara; neska-laguntzeak (ABD-027/028)**

Nobio garaiak. Domeketan erromeriara. Lehenengo gura adina "olgau" eta gero iluntzean neska-laguntzea. 21 urterekin senargaia soldadu joan zen eta 24rekin itzuli. Bitartean, lagunak mutil-lagunarekin ibiltzen ziren eta bera bakarrik ibiltzen zen. 28 urterekin ezkondu zen.

### **275. Erromerian azkenengo unera arte eta gero arineketan etxera (ABD-027/029)**

Gaztetan, 17-18 urterekin, Apatamonasteriora joaten ziren erromeriara. Bederatzi eta erdietarako etxera joan behar. Dantza bat gehiago egitearren, beranduago irteten ziren eta gero ilundu. Arineketan etxera. Berandu iritsiz gero, sekulakoak entzun behar.

### **276. Elorriotik itzultzeko autobusak kale egin eta berandu etxera (ABD-027/030)**

Behin, 18 urte zituela, Elorrioko jaietara zihoazela esan zioten lagunak. Berak goizean Otxandiotik buelta egin zuen eta jota zegoen. Baina hala ere hiru lagun joan ziren. Hamarretan zuten bueltako autobusa. Zain egon ziren, baina hamabiak aldera arte ez zen irten. Oso berandu iritsi ziren etxera. Amak sekulakoak esan zizkion. Pasadizoaren inguruko azalpen zehatzak. Ordutik oinez itzultzen ziren.

### **277. Semeak aizkorarekin belauna ebaki zueneko (ABD-027/033)**

Behin semea basora joan zen auzokoekin "txopoa" jartzeko zuhaitzen bat ekartzera. Aizkora eskuan zeramala, errepidea pasatzeko salto egin eta belauna ebaki zuen. Hiru urtean jarraian, urtero gertatu zitzaion ezbeharren bat.

### **278. Semea bizikleta eta guzti errekarara (ABD-027/034)**

Behin semea bizikleta eta guzti errekarara jausi zen. Arropak aldatu eta afaltzera, lasai.

### **279. Hiru ume urte bi eta erdian (ABD-027/036)**

Hiru seme-alaba izan zituen urte bi eta erdian. Horrela ziren orduko kontuak. Mantar handiekin batzen zituzten umeak.

### **280. Nicolas Itxaso osabari buruz (ABD-028/001)**

**281. Nicolas Itxaso: Azkeneko partida eta Frantzian hil (ABD-028/002)**

**282. Gerra garaiko udaleko agintariak gero preso (ABD-028/003)**

**283. Sotero Badaia Ezkaban preso (ABD-028/004)**

**284. Fusilatutako abadiñarrak (ABD-028/005)**

**285. Amaren familia Zallara eta ama Frantziara (ABD-028/006)**

**286. Abadiñora bueltan bizikleta lapurtu (ABD-028/007)**

**287. Sotero Badaiari buruz (ABD-028/008)**

**288. Gerra aurretik Trañako eskolan euskaraz (ABD-029/001)**

Doñatilde;a Juliana Albizuri eta Doñatilde;a Juliana "Julene" Azpeitia ziren maistrak eskolan eta haikain dena euskeraz egiten zuten.

**289. Gerra zelan hasi zen (ABD-029/002)**

**290. Martxoaren 31ko bonbardaketa Lebariotik (ABD-029/003)**

**291. Nievesen gomutak: aita kartzelan eta haren itzulera (ABD-029/004)**

**292. Ebakuazioa: lehenengo Bakiora eta gero Ortuellara (ABD-029/005)**

**293. Patxi Iturriagagoitia eta Abadiñoko udalbatza (ABD-029/006)**

**294. Legazpiko errefuxiatuak etxean (ABD-029/007)**

**295. Etxera itzuli eta etxea hutsik (ABD-029/008)**

**296. Aitaren atxiloketa (ABD-029/009)**

**297. Aitak pasatutako kartzelak (ABD-029/010)**

**298. Mauricio Zuberogaz kartzelan (ABD-029/011)**

**299. Ama Santiagora aita bisitatzera (ABD-029/012)**

Ama Benita Etxeita, Berrizen jaioa.

**300. Jende gutxi laguntzeko (ABD-029/013)**

**301. "Ahí va el rojillo" entzun behar Durangon (ABD-029/014)**

**302. Destainak herrian eta paperak ezkutuan (ABD-029/015)**

**303. Jose Maria Angulori buruz (ABD-029/016)**

**304. Hipolito Salterainen hilketaz (ABD-029/017)**

**305. Aitaren salataria: Feliciano Lebario (ABD-029/018)**

**306. Elizaren botereaz (ABD-030/001)**

**307. Ugazaba botoa erosten (ABD-030/002)**

**308. Otxandioko bonbardaketaz (ABD-030/003)**

**309. Julian anaia nazionalekin soldadu derrigorrean (ABD-030/004)**

**310. Martxoaren 31ko bonbardaketa eta ametrailamenduak (ABD-030/005)**

**311. Ebakuazioa Berangora (ABD-030/006)**

**312. Sukarrieta batailoian (ABD-030/007)**

**313. Galdakaon preso hartzetik Palentziarainokoa (ABD-030/008)**

**314. Trabadoreetan eta gero soldadu (ABD-030/009)**

**315. Lau anaiak gerran (ABD-030/010)**

**316. Anaia auzokoren batek salatu (ABD-030/011)**

**317. Gregorio eskolan Julene Azpeitia maistrarekin (ABD-031/001)**

**318. Martxoaren 31n Gregorio Durangoko ospitalean  
(ABD-031/002)**

**319. Abadiñotik Gallartara ganadu eta guzti (ABD-031/003)**

**320. Gregorio gerrara (ABD-031/004)**

**321. Gregorio preso: Bilbo, Urduña, Gasteiz, Palencia.  
(ABD-031/005)**

**322. Gregorio trabadoreetan: Palentziatik Guadalajarako  
frentera (ABD-031/006)**

**323. Gregorio: soldaduska Segovian eta Burgosen  
(ABD-031/007)**

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-05-30*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com